


# Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu

AMAIA APALAUZA OLLO\*

## 1. SARRERA

1.1. Nafarroa Garaiko ipar-mendebalean dauden lau ibarretako euskara izango dugu aztergai saio honetan: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu. Euskal Herriko erdigunean daude lau ibar horiek, Iruñea eta Tolosa lotzen zituen bide zaharrea bete-betean kokaturik.



1. irudia: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu ibarren kokapena. Egilea: G. Martin

\* Euskal Filologiako doktoregaia.

Artikulu hau Nafarroako Gobernuaren 432000-43200-4800-334100 (2007) ikerketa egitasmoaren barrenean gauzatu da. Eskerrak eman nahi dizkiegu batez ere Iñaki Caminori eta baita Karmele Etxa-beri ere, gure lana irakurri eta oharrak egiteagatik.


Honako herri hauek osatzen dituzte lau ibar horiek:

- Imotz: Eraso, Etxaleku, Goldaratz, Latasa, Muskitz, Oskotz, Urritza eta Zarrantz.
- Basaburu Nagusia: Aizarotz, Arrarats, Beramendi, Beruete, Erbiti, Gartzaron, Ihaben, Igoa, Itsaso, Jauntsarats, Orokieta eta Udabe.
- Larraun: Albiasu, Aldatz, Alli, Arruitz, Astitz, Azpirotz, Baraibar, Errazkin, Etxarri, Gorriti, Iribas, Lekunberri, Madotz, Mugiro, Oderitz eta Uitz<sup>1</sup>.
- Araitz-Betelu: Arribe, Atallu, Azkarate, Betelu, Gaintza, Intza eta Uztegi.

Administratiboki, udalerri beregainak dira Lekunberri eta Betelu, baina, geografikoki, Larraun ibarrean dago Lekunberri, eta Araitzen, berriz, Betelu. Lan honetan, ibar geografikoa hartuko dugu aintzat.

Lau ibarren mugakideak honako hauek dira:

- Imotz: iparraldean, Basaburu Nagusia eta Ultzama; ekialdean, Atetz; hegoaldean, Txulapain, Gulibar eta Arakil; eta, mendebalean, Larraun.
- Basaburu Nagusia: iparraldean, Basaburu Txikia; ekialdean, Ultzama; hegoaldean, Imotz; eta, mendebalean, Larraun eta Leitza.
- Larraun: iparraldean, Leitza eta Areso; ekialdean, Basaburu Nagusia eta Imotz; hegoaldean, Arakil eta Aralar mendia; eta, mendebalean, Araitz-Betelu.
- Araitz-Betelu: iparraldean, Areso, eta Gipuzkoako Lizartza, Oresa eta Gaztelu; ekialdean, Larraun; hegoaldean, Aralar mendia; eta, mendebalean, Gipuzkoako Amezketeta eta Bedaio (Tolosako auzoa).



2. irudia: Lau ibarretako herriak eta haien mugakideak. Egilea: G. Martin

<sup>1</sup> Herrien kokapen geografikoa aintzat hartuz, Larraungo ipar-mendebalekotzat hartuko ditugu Gorriti, Uitz, Azpirotz eta Errazkin, eta hego-ekialdekotzat, aldiz, Albiasu, Lekunberri, Baraibar, Etxarri, Aldatz, Iribas, Mugiro, Alli, Arruitz, Astitz, Oderitz eta Madotz.

1.2. Duela gutxi arte, nekazaritza, abeltzaintza eta basozaintza izan dira lau ibar horietako jarduera ekonomiko nagusiak, baina gero eta jende gehiagok industrian eta zerbitzuen arloan lan egiten du. Eremuko industriagune bakarra Lekunberrin dago; gaur egun, hamar enpresa daude bertan, eta kopurua gora egiten ari da. Zerbitzuen sektoreak ere indarra du Lekunberrin; batetik, orotariko zerbitzu publikoak daude (osasuna, hezkuntza, kultura, gizartea, administrazioa), eta, bestetik, pribatuak (era askotako dendak, bankuak, tailerrak, taxiak). 2001eko erroldako datuen arabera (ikus Nafarroako Estatistika Institutuaren datuak: [www.cfnavarra.es/estadistica](http://www.cfnavarra.es/estadistica)), Lekunberriko biztanleen %28,5 industrian aritzen da, %13,4 eraikuntza arloan, %52,3 zerbitzuetan, %1,1 energia arloan, eta %4,6 nekazaritzan eta abeltzaintzan. Esan daiteke, beraz, Lekunberri hiri-funtzioa hartu duela azken urteotan, batik bat 1995ean Larraundik banandu eta bere kasa funtzionatzen hasi zenetik. Baina betiere azpimarratu nahiko genuke berria dela Lekunberriren “hiri-izaera” hori.

Baina Lekunberri ez da inguru horretako “hiri” bakarra. Gaur egungo komunikabideei esker, Iruñea oso hurbil dago aztergai ditugun lau ibarretako herri guztietatik. Administrazio-kontuetarako, Iruñera joaten dira bai imoztarrak, bai basaburutarrak, bai larraundarrak eta bai araitzarrak. Beste jarduera batzuetarako ere bilgune garrantzitsua da Iruñea: erosketak, aisia, ikasketak, lana, eta abar. Baina hori ez da beti horrela izan. Izan ere, duela gutxi arte, Tolosa eta Irurtzun izan dira gure eremuko herrien beharrak asetzeko gune nagusiak. Araitz-Beteluko bizilagunek Tolosara joateko ohitura handia izan dute (feriara batez ere), eta oraindik ere hara jotzen dute aisiarekin edota lanarekin lotutako edozein jardueratarako. Bestalde, Irurtzunek Imozko, Basaburu Nagusiko eta Larraungo jendea bildu du urte askoan; kontuan hartzekoa da haren kokapen geografiko estrategikoa, inguruko herrietako bizilagunen topagune izatea ekarri duena (cf. Urabaien 1959: 68).

1.3. Bestalde, kontuan izan behar da aztergai dugun eremuko herriak oso txikiak direla: gorago aipatu dugun Lekunberri da herririk haziena, eta 1.085 lagun zeuden han erroldatuta 2006an. Gainerako herrietan, askoz jende gutxiago bizi da: bada hogeitaz bizilagunen bueltan dabilen herri multzo bat (Golderatz, Zarrantz, Muskitz, Aizarotz, Beramendi, Udabe, Albiasu, Astitz, Madotz), eta gainerako herri gehienak ez dira ehun lagun izatera iristen. Azken urteotan badirudi pittin bat gora egiten ari dela demografia-indizea; alabaina, XIX. mendearen erdialdetik hasita, demografiak behera egin du nabarmen gure eremuko lau ibarretan, bereziki 1960-1981 urteen artean. Joera hori garbi ikusiko dugu taula honetan:

	1857	1910	1960	1981	1991	1996	2001	2006
<b>Imotz</b>	1.209	1.024	874	457	429	405	407	427
<b>Basaburu Nagusia</b>	1.755	1.637	1.355	850	736	682	674	799
<b>Larraun</b>	3.889	3.271	2.851	2.015	1.762	1.966	1.858	2.156
<b>Araitz-Betelu</b>	2.637	1.911	1.448	1.095	877	947	921	934

Datuen iturria: Nafarroako Estatistika Institutua

Euskararen egoerari dagokionez, eremu euskalduna osatzen dute lau ibarrek, baina bada aldea herri batetik bestera. Irizarrek 70eko hamarkadako egoerari buruzko datu zehatzak eman zituen (1981a: 191-197). Ibarrez ibar ikusiko ditugu:

- Imotz: 584 biztanle, 411 euskaldun (%70,37)
- Basaburu Nagusia: 1.107 biztanle, 900 euskaldun (%81,3)
- Larraun: 2.408 biztanle, 1.847 euskaldun (%76,7)
- Araitz-Betelu: 1.383 biztanle, 1.141 euskaldun (%82,5)

2001eko erroldatik ateratako datuak ikusiko ditugu orain (datuon iturria: Nafarroako Estatistika Institutua)<sup>2</sup>:

- Imotz: 407 biztanle, 238 euskaldun (%58,47)
- Basaburu Nagusia: 674 biztanle, 485 euskaldun (%71,95)
- Larraun: 1.858 biztanle, 1.301 euskaldun (%70,02)
- Araitz-Betelu: 921 biztanle, 834 euskaldun (%90,5)

Datuetan ikusten denez, euskaldun kopuruaren ehunekoak behera egin du Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen, baina gora egin du Araitz-Betelun. Galera handiena Imotzen gertatu da (%70,37tik %58,47ra). Basaburu Nagusiko eta Larraungo ehunekoek ere behera egin dute, baina askoz ere neurri txikiagoan, Imotzekin alderatuz gero. Alabaina, euskaldun kopuruari erreparatuz gero, beherakada handia izan da lau ibarretan: jende gutxiago bizi den heinean, gero eta jende gutxiago dago euskaraz hitz egiteko. Hala, Araitz-Betelun igo egin da euskaldunen ehunekoa; baina, euskaldun kopuruari begiratzuz gero, 2001ean euskaldun gutxiago zegoen 1970 aldean baino. Ildo horretatik, esanguratsuak dira Imozko eta Basaburu Nagusiko datuak: 70eko hamarkadatik 2001. urtera, ia erdira jaitsi da euskaraz dakiten lagunen kopurua. Jakina, euskaraz jakiteak ez du esan nahi hiztun horiek beti euskaraz egiten dutenik, baina ez diogu gai horri helduko; zera azpimarratu nahiko genuke hemen, eskualdeotako euskarak oso hiztun gutxi dituela, eta gero eta gutxiago, gainera.

Inguruko eskualdeetako demografia- eta hizkuntza-datuak begiratzuz gero, oro har, beheranzko joera ikusten da Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretatik ekialde eta hegoaldera (Atetz, Ultzama, Arakil, Gulibar). Basaburu Nagusiaren iparraldean den Basaburu Txikian, biztanle kopurua nabarmen jaitsi da, baina euskaldunen ehunekoak oso gora daude. Azkenik, Larraungo eta Araitz-Beteluko mugetan, Leitza jendetsua eta oso euskalduna dugu; Areso ttikia baina euskalduna da; eta, Gipuzkoara ezker, herri handiagoak, jendetsuagoak eta euskaldunak topatuko ditugu eskuarki (Tolosaldekoak eta Goierrikoak). Ondorioa garbia da: inguruan eskualde euskaldunak dituzten herriek hobeki eutsi diote euskarari (Araitz-Betelu, Larraun, Basaburu Nagusiko iparraldea, Goldaratz), eta euskara galduz doa inguru erdaldunagoa duten herrietan (Basaburu Nagusiko hegoaldea, Imotz gehiena).

<sup>2</sup> Honako kategoria hauek hartu ditugu aintzat: euskaldun alfabetatuak, euskaldun ia alfabetatuak eta euskaldun alfabetatu gabeak (kanpoan utzi ditugu quasi euskaldun alfabetatuak, quasi euskaldun alfabetatu gabeak eta quasi euskaldun pasiboak).

Sanchez Carrionek Nafarroa Garaiko euskararen diagnosia egin zuenean (1970 inguruan), bi alderdi nagusi azpimarratu zituen gure eremuko lau ibar-rak aztertzean: batetik, gaztelania indarrez sartzen ari dela gune jakin batzuetatik abiatuta (Latasa, Urritza, Eraso, Jauntsarats, Ihaben, Lekunberri, Mugiro, Betelu, Arribe, Atallu), eta, bestetik, herriak husten ari direla, eta, horrekin batera, hango hizkerak galtzen (1972: 63-86, 141-160).

1.4. Gatozen berriro aztergai ditugun lau ibarren kokapen geografikora. Lau ibarren kokapena estrategikoa da: Euskal Herriko erdigunean daude, eta, Iruñea eta Tolosa lotzen zituen bide zaharrea egonik, igarobide garrantzitsu izan dira urte askoan zehar. Izan ere, Iruñea-Tolosa arteko bidea oso garrantzitsua izan zen XVIII-XIX. mendeetara arte (Olano 1998: 35):

(...) Erdi Aroaz gero garrantzi haundikoa izan zen gaiztaginen muga igaroaz Iruñea eta Tolosa lotu zituen bidea. Iruñetik Lekunberrira bitarte, orain berriro arte ezagutu dugun bidea jarraituko zuen; baina Lekunberritik iparraldera, Azpirozko gainetik behera jo beharrean, Azpirotz herritik igaro eta Gorritiraino helduko zen, Areso eta Berastegi gainetik (Uli menditik), Gaztelu barrena Tolosara iristeko. Garai hartan Tolosak, mugako gerrateak gorabehera, ausarki zaindu zuen Nafarroarekin lotzen zuen bide hau. Izan ere, Oria ibarrean ederki kokaturik, eta Probintziarako sarlekurik nagusienetakoa izaki, ez baitzen ttikia izanen mugasarien bitartez bertako jauntxoek eskuratuko zuten diruketa (...).

Hain zuzen, XVIII. mendearen erdialdean hasi ziren eraikitzen orduko errepede berria (Olano 1998: 37):

Gorriti igarotzen zuen Iruñea-Tolosa errepedeak, alabaina, bere horretan segitu zuen, 1784. urtean eraikitzen hasi ziren errepede berria martxan jarri zen arte. Errepide berri hau, hain zuzen, Azpirotz gainetik Arantzabalarara jaitsi eta Betelu, Arribe, Atallu eta Lizartzatik barrena Tolosara helduko zen.

Horrek guztiak aditzera ematen du era askotako harremanak sortuko zirela bide horretan, alde batekoak zein bestekoak: salerosketa-harremanak, larre-kontuak, artzain-tratuak, borrokak eta ezinikusiak, eta, jakina, baita adiskidetasunezko harremanak ere. Gipuzkoarrak eta nafarrak hartu-eman etengabe ibili dira, beraz, bide horretan.

Hain zuzen ere, ardatz horretan, ospe handiko feria bana sortu ziren: Irurtzungoa eta Tolosakoa. Garai batean, topagune garrantzitsua izaten ziren feriak, alderdi bateko eta besteko bizilagunak elkartzeko toki ezin aproposagoak baitziren. Irurtzungoa Nafarroako feria garrantzitsuenetakoa bat izan zen, eta Nafarroako, Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta baita Espainiatik etorritako jendea elkartzen zen bertan (Casas Torres eta Abascal Garayoa 1948: 31). Gure berriemaileengandik jaso dugunez, imoztarrek, basaburutarrek eta larraundarrek astero Irurtzungo feriara joateko ohitura zuten, baina araztarrek Tolosarako joera handiagoa izan dute, nahiz Irurtzuna ere joaten ziren aldi behin. Araiztar askok esan digute beren aurrekoak beharbada maizago joango zirela Irurtzuna, baina berek Tolosara jo dutela gehien-gehienean. 1948ko datuetan, bai Irurtzun eta bai Tolosa ageri dira araztarren (eta Larraungo Azpirozko eta Errazkingo) merkatu-ohituren artean (Casas Torres

eta Abascal Garayoa 1948: 111-112, 121-123). Tolosako feriak ospe handia zuen Gipuzkoan (Casas Torres eta Abascal Garayoa 1948: 189; Hurtado 2001: 27), eta, han, Gipuzkoa osoko jendearekin topo egingo zuten araitzarrak<sup>3</sup>.

Gainerako harreman-sareei dagokienez, betiere kontuan izanik harreman-sareak garaiko beharren arabera eraikitzen direla, garai batean, artzain eta abeltzainen arteko harremanak, errotak, eskola, herrietako festak, erromeriak eta halakoak izaten ziren hartu-eman gehienen sorburua. Gure berriemaileekin egindako saioetan jaso dugunetik abiatuta, atera dugun ondorio nagusia da gertuko herrietako jendearekin izaten zituztela harreman gehienak. Oro har, imoztarrak, basaburutarrak eta larraundarrak bateratsu ibili dira, baina koka-pen geografikoak eragin handia du harreman horietan, eta ñabardura asko egin daitezke. Hala, muskiztarrek harreman berezia zuten Atezko Beratsain, Txulapaingo Beorburu eta Gulibarko Aginaga eta Zia herrietako bizilagunekin; Goldaratz Larraungo Oderitz, Madotz eta Astitz herriekin batera ibili da beti, mendiz hurbilago baitaude horiek Imozko gainerako herriak baino, eta horrek artzainen eta abeltzainen arteko harreman sakona ekarri zuen, besteak beste; Basaburu Nagusiko iparraldeko herrietako (Beruete, Arrarats eta Igoa) artzainek Leitzako mugara eramaten zituzten ardiak, eta leitzarrek, eratsundarrek zein ezkurrarrek elkartzten ziren han; eta Larraungo ipar-mendebaleko herriek lotura izan dute Araitz-Betelurekin, mendiz joanez gero oso hurbil baitago (gainera, Atalluko eta Gorritiko umeak eskolan batera ibili ziren XX. mendearen hasieran, Gorritin). Araitz-Beteluko bizilagunek, aldiz, harreman estua izan dute ondoko gipuzkoarrek<sup>4</sup>. Esate baterako, Aralarren, ohikoa zen Araizko eta Sakanako artzainak Tolosaldekoekin eta Goierrikoekin elkartzea, eta Zaldibiatik Araitza eta Sakanara joaten ziren kontrabandoan (Etxabe eta Garmendia 2003: 30). Azkarateko San Ferminak edota Beteluko ostiraletako feria ere Nafarroako eta Gipuzkoako mugaren bi aldeetako laguneren topagune izaten ziren, eta, gerra ondoan, amezketar, bedaiotar zein tolosar asko Uztegiko kooperatibara edota Beteluko errotara joanik daude janari edo irin eske, hango jan-eskasia zela eta (Apalauza eta Arraztio 2003-2005).

Larraungo ipar-mendebalean ere hartu-eman handia zegoen gipuzkoarrek: Gorritin kontatu digutenez, kontrabando-garaian, Berastegira, Oregara, Gaztelura nahiz Lizartzara joaten ziren axuriak eta bestelako gaiak eramatera. Gainera, kontuan izan behar da gorago aipatutako bide zaharra Gorrititik igarotzen zela, eta, esate baterako, Aralarko San Migelgo erromeriara joateko, Gorrititik igaro behar izaten zuten gipuzkoar askok.

Gaur egun, komunikabideak asko erraztu dira, eta, horrekin batera, harreman-sareak ere aldatu dira. 1.2. atalean adierazi dugu zein diren gaur egungo bilgune nagusiak.

<sup>3</sup> Erizek Uitziko hizkuntza-komunitatearen gainean egin duen azterketan aipatzen du uitziarrek Iruñeko, Irurtzungo eta Tolosako ferietara joaten zirela, baina lehentasuna lehenengo biek zutela betiere (1997: 334-335).

<sup>4</sup> Hala izan da historian ere (cf. Urabaien 1959: 64).

1.5. Harreman horiek guztiek, pentsatzekoa den bezala, arrasto nabaria utzi dute hizkuntzan ere. Orain arte gure eremuaz egin diren azterketetan, Gipuzkoako hizkerak batez ere Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun izan duten eragina aipatu izan da. Hala, Bonapartek zera zioen Etxenikeri 1864an bidalitako gutun batean: “En Araiz, en Larráun y en las dos Basaburúas, por el contrario, tenemos todavía navarro mezclado de guipuzcoano” (Irizar 1981a: 111). Eta hona Damaso Intzaren hitzak: “Araitz’tik urbillen gelditzen diran errietan Albiatsu, Errazkin, Azpirotz eta Gorritin, gipuzkerara geien ematen duten joerak dituzte aditzaren erabilketan” (1957: 92).

1869an, Bonaparte printzeak iparraldeko goi-nafarreran sailkatu zituen aztergai ditugun lau ibarrak (Irizar 1981c: 119): batetik, Lizasoko aldaeraren barnean sartu zituen Imotz eta Basaburu Nagusia, Atetzekin, Ultzamarekin eta Anuerekin batera. Bestetik, Intzako aldaeran kokatu zituen Araitz-Betelu eta Larraungo ipar-mendebala (Albiasu barne), Aresorekin eta Leitzarekin batera. Larraungo hego-ekialdea, berriz, Uharte Arakilgo aldaeran sartu zuen, Sakanako hizkerekin batera. Irizarrek aditzari buruzko bere lan mardula egin zuenean, argudio sendoak eman zituen Larraungo hego-ekialdea Intzako aldaeran sartzeko, Larraungo eta Araitz-Beteluko gainerako herrieekin batera (Irizar 1992a: 4-5), eta irizpide egokia izan zelakoan gaude.

Bonaparteren sailkapena zalantzan jarri izan dute zenbait ikertzailek, hizkera horiek euskara nafarrean edo giputzean sailkatu behar ote ziren jakiteko erabilitako irizpideak egokiak izan ez zirelako (Zuazo 1998: 192). Ildo horretatik, Ibarrek bestelako sailkapen bat proposatu du (1995: 693): goi-nafarrera ekialdekoan sartu ditu Atetz, Ultzama eta Anue (Baztan-Bidasoako hizkerekin eta hegoaldeko goi-nafarrerarekin batera), eta goi-nafarrera mendebalekoan, berriz, Imotz, Basaburu Nagusia eta Araitz-Betelu, Arakilekin eta Basaburu Txikiarekin batera.

O. Ibarrenaren ikuspegi berriari jarraituz, Zuazok erdialdeko euskarara bildu ditu lan honetan aztergai ditugun lau ibarrak: Araitz-Betelu bete-betean dakusa erdialdeko euskararen baitan, eta tarteko hizkeratzat hartu ditu Larraungoa, Basaburu Nagusikoa eta Imozkoa (1998 eta 2003: 137-138, 179).

1.6. Nolanahi ere, euskal dialektologian eremu aski ezezaguna da gurea oraindik ere. O. Ibarrek Atetz, Ultzama eta Anue alderdia Imotzekin eta Basaburu Nagusiarekin alderatzeko saio bat egin du (1995), baina ez dakigu zer gertatzen den handik mendebalera. Ez dakigu zehazki zer harreman dagoen Imotzen eta Basaburu Nagusiaren artean, ez dugu Larraungo eta Araitz-Beteluko euskara ezagutzen, badakigu ez direla berdin mintzatzen Ultzama-ko mugatik hasita Araitz-Beteluraino, baina ez dakigu zertan diren desberdinak. Saio honen bidez, hutsune hori betetzeko urrats bat egitea da gure helburu nagusia, eta, horretarako, Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko euskararen ezaugarri nagusiak deskribatuko ditugu lehenik, herrien arteko desberdintasunak agerian utziz, eta, ondoren, joera nagusiak zein diren laburbilduko dugu. Hartara, pauso bat emango dugu Nafarroako ipar-mendebaleko hizkeren kokapen geolinguistikoa zein den argitzeko. Gure alde daukagu inguruko hizkeren gainean dugun ezagutza, beste ikertzaile batzuek azkenaldian egindako azterketei esker: Leitza eta Are-

so (Olano 1998), Tolosaldeko hegoaldea eta Goierri (Hurtado 2001), Sakanako erdialdea (Erdozia 2001), Atetz eta Ultzama (Ibarra 1995). Ezezagunagoak zaizkigu Gulibarko, Arakilgo edota Txulapaingo hizkerak, baina horretan ere asko aurreratu da azken urteotan (ikus, batez ere, Camino 2003, 2005 eta 2006). Lan horiek guztiak oso aintzat hartuko ditugu, hizkerak elkarren artean alderatzeko. Azpimarratu nahi dugu Basaburu Txikiko euskararen eta Nafarroako mugaren ondoko hizkera giputzen gaineko azterketa zehatz eta sakonen falta nabaritu dugula.

1.7. Hemen aurkeztuko ditugun datuak gerok jasoak dira, 2001-2007 urteetan. Imozko, Basaburu Nagusiko, Larraungo eta Araitz-Beteluko herri gehienetan ibili gara datu biltzen, eta inguruko beste hizkera batzuetako zenbait datu ere baliatu dugu: Karmele Etxabek Amezketan eta Zaldibian bildutakoak<sup>5</sup>, eta Bittorio Lizarragak Basaburu Txikian bildutakoak<sup>6</sup>. Gure eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu bi datu-biltzaileoi. Gainerako datuak beste ikertzaile batzuei zor dizkiegu (ikus bibliografia).

1.8. Hona hemen lan honetan agertzen diren herri-izenen laburdurak: Im. (Imotz), Era. (Eraso), Etxal. (Etxaleku), Gol. (Goldaratz), Lat. (Lataso), Mus. (Muskitz), Osk. (Oskotz), Urr. (Urritza), Zarr. (Zarrantz), Bas. Nag. (Basaburu Nagusia), Arrar. (Arrarats), Bera. (Beramendi), Beru. (Beruete), Er. (Erbiti), Gar. (Gartzaron), Ig. (Igoa), Iha. (Ihaben), Its. (Itsaso), Oro. (Orokietia), Ud. (Udabe), Larr. (Larraun), Alb. (Albiasu), Ald. (Aldatz), Arru. (Arruitz), Ast. (Astitz), Azp. (Azpirotz), Bar. (Baraibar), Erra. (Errazkin), Gorr. (Gorriti), Iri. (Iribas), Mad. (Madotz), Od. (Oderitz), Ui. (Uitzi), Ar.-Bet. (Araitz-Betelu), Arri. (Arribe), At. (Atallu), Azk. (Azkarate), Bet. (Betelu), Gai. (Gaintza), In. (Intza), Uzt. (Uztegi).

## 2. HIZKUNTZA-EZAUGARRI NAGUSIAK

### 2.1. Fonologia: bokalak

#### 2.1.1. *Bokal luze edo geminatuak*

Eremu osoan ageri dira bokal luzeak, baina haien maiztasuna jaitsi egiten da Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdean. Aldaketa graduala da nolabait: zenbat eta ekialderago, orduan eta urriago ageri dira bokal luzeak. Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, joera bertsua suma daiteke, bokal luzeen maiztasuna apaldu egiten baita, hala nola Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995: 168-173), Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 53-54) edota Aezkoan (Camino 1997: 305-306).

Batik bat bokal arteko kontsonanteak (*r*, *b*, *d*, *g* eta *n*) galtzearen ondorioz sortzen dira bokal luzeak, baina baita bestelako bokal-asimilazioen ondorioz ere (ikus 2.1.2.). Hitz barnean zein hitz mugan sortzen dira: *mezaa* ‘mezara’ (Etxal.), *iñaazi* ‘eginarazi’ (Its.), *bala atzuk* ‘bala batzuk’ (Azp.), *atzaparkaa* ‘atzaparkada’ (Bet.), *deetxo* ‘gazt. derecho’ (In.), *leena* ‘legena; azaleko

<sup>5</sup> (K. E.) laburdura erabiliko dugu hemendik aurrera.

<sup>6</sup> (B. L.) laburdura erabiliko dugu hemendik aurrera.



gaitza' (Od.), *oolki* 'odolkia' (Arru.), *gooratu* 'gogoratu' (Ig.), *goorra* 'gogorra' (Ald.), *autuusa* 'autobusa' (At.), eta abar.

Bokal luzeak ohikoak dira Euskal Herriko erdiguneko hizkeretan. Hala, gure eremuaz gaindi, badira horrelakoak Basaburu Txikiko Eratsunen eta Ezkurran (Apalauza eta Lakar 2001-2003), Leitzan eta Areson (Olano 1998: 70-71), Sakanan (Erdozia 2001: 110-119), eta baita Gipuzkoako Tolosaldean eta Goierrin ere (Hurtado 2001: 52-53). Gipuzkoako iparraldean, bokal luzeak ohikoak dira Oiartzungo hizkeran (Fraile eta Fraile 1996: 28-29) edota Zarautzen (Agirrebeña eta beste 2007: 34), eta badira, halaber, Lapurdiko hegoekialdean (Epelde 2004: 279).

### 2.1.2. Izenari mugatzailea gehitzean sortutako bokal-asimilazioak

Izenari *-a(k)* mugatzailea gehitzean, errealizazio mota bat baino gehiago sortu da gure eremuko herrietan. Oro har, bokal-asimilazio ugari gertatzen da eremu osoan, baina aldea nabarmena da herri eta ibar batetik bestera. Egitura horietako zenbait aztertuko ditugu atal honetan.

2.1.2.1. *-e + -a*. Muskitzen, *-ia* egiten dute: *eltzia* 'eltzea', *obia* 'hobea', *tenedoria* 'gazt. tenedor'. *-ia* bukaera Euskal Herriko hizkera askotan ageri da, baina, guri dagokigunez, esanguratsua da Imotz ondoko Atetzen eta Ultzman ere (eta baita handik ekialdera ere) *-ia* erabiltzea (Ibarra 1995: 340-345); hizkera horiei loturik ageri zaigu Muskizkoa. Imozko beste muturrean, Goldaratzen hain zuzen, *-ii* da emaitza, eta hori bera dago Basaburu Nagusi gehiengan eta Larraungo hego-ekialdean ere: *gazta-inzalii* 'gazta-eginzalea' (Gol.), *klientii* 'gazt. cliente' (Gol.), *gastii* 'gaztea' (Its.), *sarii* 'sarea' (Iri.), *tristii* 'tristeia' (Arru.). Alabaina, *-ee* ere entzun daiteke, Basaburu Nagusiko iparraldean (Beruete, Arrarats eta Igoa), Larraungo hego-ekialdean, eta Uitzin eta Gorritin: *azidentee* 'gazt. accidente' (Beru.), *otee* 'otea' (Od.), *goldee* 'goldea' (Od.), *pakete* 'paketea (< gazt. paquete)' (Ald.), *gosee* 'gosea' (Gorr.). Azkenik, *-ea* dugu Muskiz eta Goldaratz ez beste Imozko herrietan<sup>7</sup>, Basaburu Nagusiko ekialdean<sup>8</sup>, Araitz-Betelun, eta Larraungo Azpirotzen eta Errazkinen: *semaa* 'sema' (Etxal.), *kablea* 'kablea' (Azp.).

2.1.2.2. *-i + -a*. Batetik, *-ii* dugu Goldaratzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean: *argezarii* 'argizaria' (Gol.), *maiorii* 'gazt. mayoría' (Gol.), *bijilii* 'gazt. vigilia' (Its.), *ongarrii* 'ongarria' (Alb.). Bestetik, *-ie* ahoskatzten dute Goldaratz ez beste Imozko herrietan, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun: *atarie* 'ataria' (Era.), *erdie* 'erdia' (Ui.), *ebakie* 'ebakia' (Gai.).

2.1.2.3. *-u + -a*. Banaketa antzekoa da hemen ere: *-uu* dago Goldaratzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean, eta *-ue*, aldiz, Imozko gainerrako herrietan, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun. Hona bietariko adibideak: *edadetuu* 'edadetua, adinekoa' (Beru.), *ipuruu* 'ipurua' (Gol.), *komentuu* 'komentua' (Ald.), *ekulluu* 'ukuilua' (Alb.); *fistue* 'txistua' (Osk.), *izandue* 'izan(du)a' (Arri.).

*-ii* '-ea, -ia', *-ee* '-ea' eta *-uu* '-ua' emaitzek kolore berezia ematen diote Goldarazko, Basaburu Nagusiko eta Larraungo hego-ekialdeko euskarari: ba-

<sup>7</sup> Moutardek *-ia* bildu zuen Etxalekun (1975: 181), baina guk *-ea* besterik ez dugu entzun han.

<sup>8</sup> Erbitin, Gartzaronen eta Orokietan, *-ea* nahiz *-ia* entzun dugu, baina nabaria da *-ea* erabiltzen dutela gero eta gehiago.

tetik, hizkera horien ingurumarian ez da halakorik erabiltzen<sup>9</sup>, eta, bestetik, ezaugarri aski markatua da, inguruko hiztunek maiz aski aipatzen baitute “basaburutarrek eta larraundarrek dena *-i* eta *-u* egiten dutela”. Irizar bera ere ohartu zen horretaz (1992a: 32):

Estas diferencias en la pronunciación son, como hemos indicado, muy destacadas y claramente perceptibles en la conversación. A mi juicio, constituyen la causa fundamental –más aún que las diferencias en la conjugación, aunque éstas no sean despreciables– de que los habitantes de los pueblos vecinos consideren que los de los mencionados lugares tienen un habla peculiar.

2.1.2.4. Pluralean, bada desberdintasun nabarmen bat: Muskitzen ez da mugatzailea galtzen; bai, ordea, gainerako herrietan. Hala, pluralean, *-iak*, *-iek* eta *-uek* dira Muskizko emaitzak: *makumiak* ‘emakumeak’, *nekazariak* ‘nekazariak’, *ardi-buruek* ‘ardi-buruak’. Gainerako herrietan, ia erabatekoa da mugatzailea galtzea; salbuespena da Imozko tarteko herrietan, Basaburu Nagusiko ekialdean, Araitz-Betelun, eta Azpirotzen eta Errazkinen erabiltzen den *-eak*. Bestela, *-ik* ‘-eak’ dago Goldaratzan, Basaburu Nagusi gehiengan eta Larraungo hego-ekialdean: *pesta aurreko txukundadik* ‘festa aurreko txukundadeak’ (Gol.), *luzik* ‘luzeak’ (Its.), *bestik* ‘besteak’ (Bar.), *fazilidadik* ‘gazt. facilidad (pl.)’ (Arru.). *-ek* ‘-eak’ erabiltzen da Azpirotz eta Errazkin ez beste Larraungo herrietan eta Berueten: *aitagurek* ‘aitagureak’ (Ald.), *urtek* ‘urteak’ (Ui.), *tomatek* ‘tomateak’ (Beru.). Azkenik, *-ik* ‘-iak’ eta *-uk* ‘-uak’ dago Muskitz ez beste herri guztietan: *manik* ‘gazt. manía (pl.)’ (Bar.), *arrik* ‘harriak’ (Azk.), *eskuk* ‘eskuak’ (Etxal.), *santuk* ‘santuak’ (Ui.).

Zuazok Euskal Herri osoko baina eremu murrizteko ezaugarritzat hartu du mugatzailea galtzea (1998: 224). Gure eremuan, Muskitz ez beste herrietan gertatzen dela ikusi dugu; alabaina, Araitz-Betelu ondoko Tolosaldeko hegoaldean eta Goierriin, indar handiagoa du, *-ok* ‘-oak’ ere ahoskatzen baita (Hurtado 2001: 63-64), gurean ez bezala. Muskitzen eta handik ekialdera, ez da mugatzailea galtzen.

### 2.1.3. *a > e asimilazioa*

Eremu osoko ezaugarria da *i* eta *u* bokalen eraginez sortutako *a > e* asimilazioa. Ingurune morfoloikiko askotan betetzen da; besteak beste, oparoa da ‘*-i*, *-u* (C) + *-a* mugatzailea’ ingurunean, eta mailegutan ere betetzen da<sup>10</sup>: *txuikiñe* ‘txurikina’ (Gol.), *apike* ‘apika’ (Era.), *fabrike* ‘fabrika’ (Lat., Osk.), *basauntze* ‘basahuntza’ (Osk.), *euskaldune* ‘euskalduna’ (Ud.), *makille* ‘makilla’ (Iri.), *giltze* ‘giltza’ (Ui.), *kuartille* ‘gazt. cuartilla’ (Alb.), *falanjiste* ‘gazt. falangista’ (Arri.).

Ezin ezar dezakegu ezaugarri horren araberako isoglosa garbirik gure eremuan, baina, asimilazioa zein ingurunetan betetzen den aztertzen hasita, ondorioa da asimilazioa ez dela ingurune beretan gertatzen toki guztietan. Hala, zenbait ingurunetan, herri guztietan aurki daiteke asimilazioa; baina, beste kasu batzuetan, asimilazioa ingurune jakin batzuetan betetzen da herri

<sup>9</sup> Salbu Basaburu Txikiko Ezkurran (B. L.).

<sup>10</sup> Ikus adibide gehiago 2.1.2. atalean.

batzuetan, eta bestelako ingurune batzuetan beste herri batzuetan. Desberdintasun horiei erreparatuko diegu.

Lehenik, eremuko gainerako herrietan betetzen ez den bi ingurunetan ageri da asimilazioa Imozko Muskitzen:

2.1.3.1. *-i, -u* (C) + *eta* juntagailua: *gosaldu, te buelta itxea* ‘gosaldu, eta buelta etxera’, *berroi o berroite bost gradu* ‘berrogei edo berrogeita bost gradu’. Gainerako herrietan, *(e)ta* ahoskatzen da halakoetan, nahiz *te* ere ageri den bakanka Etxalekun.

2.1.3.2. Konpletibo-morfema *-(e)la > -le*: *emendi(k) goazile, eskuinetaa* ‘hemendik goazela, eskuinetara’, *tokatu zaigule* ‘tokatu zaigula’. Gainerako herrietan, ez dago halako asimilaziorik, eta *-(e)la* da morfema.

2.1.3.3. Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan (alegia, Oskotz, Etxaleku, Muskitz, Erbiti, Gartzaron eta Orokieta), indar berezia du bilakabideak hitz barnean, maileguetan bereziki: *auzelan* ‘auzalana’ (Mus.), *abitezio* ‘gazt. habitación’ (Mus.), *obligezio* ‘gazt. obligación’ (Mus.), *iteie* ‘igitaia’ (Osk.), *saludetu* ‘gazt. saludar’ (Etxal.), *kastigetetu* ‘gazt. castigar’ (Osk., Etxal.), *afeitetu* ‘gazt. afeitar’ (Osk.), *fumetu* ‘gazt. fumar’ (Osk.). Hitz batzuetan, eremu osoan dugu asimilazioa (adibidez, *launbeta* ‘larunbata’), baina bilakabidea bereziki bizkorra da aipatutako eremuan.

Hain zuzen ere, ondoko Ultzaman ere oparoa da asimilazioa hiru ingurune horietan (Ibarra 1995: 115-116); ezaugarri horretan, beraz, Ultzamako arekin bat datoz Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko hizkerak.

Bestalde, gure eremuaren mendebalean, emaitza bereziak utzi ditu asimilazioak honako ingurune hauetan:

2.1.3.4. *-ra* adlatibo-morfema *-(r)a > -(r)e*. Eremu osoan betetzen da hori: *ferire* ‘feriara’ (Lat.), *Gorritie* ‘Gorritira’ (Arru.), *zerbitzura* ‘zerbitzura’ (Urr.), *ekullue* ‘ukuilura’ (Iri.). Alabaina, Basaburu Nagusiko iparraldean, Larraunen eta Araitz-Betelun, atzeraka bete da asimilazioa; alegia, adlatibo-morfema ez ezik, hitzaren beraren *-i* edo *-u* ere asimilatu egin da, eta *-ee* emaitza sortu da ondorioz: *Lekunberree* ‘Lekunberrira’ (Ald., Beru.), *saskee* ‘saskira’ (Gai.), *karnizeree* ‘karnizeriara’ (Bar.). Halakoak ohiko *Lekunberrie*, *saskie* eta *karnizerie* adibideekin txandaka ageri dira.

Are gehiago, zenbait kasutan, Larraunen eta Araitz-Betelun, *-i*-rik egon gabe ere gertatu da asimilazioa, gorago ikusitako adibideekiko analogiaz-edo: *Baraarre* ‘Baraibarra’ (Alb., Erra., Bet.), *Azpiotze* ‘Azpirotza’ (Arri.), *trenee* ‘trenera’ (Od.), *trinketea* ‘trinketera’ (Ald.), *balsee* ‘baltsera (balts dantza)’ (Alb.). Horiek *Baraarra*, *Azpiotza*, *trenea*, *trinketea*, *balsea* gisakoekin txandaka erabiltzen dira.

Azkenik, Basaburu Nagusiko iparraldean diren Arraratsen eta Igoan (Berueten ez), *-e(r)a* entzun daiteke zenbait adibidetan: *Berasteera* ‘Berastegira’ (Arrar.), *mendea* ‘mendira’ (Arrar., Ig.), *Frantzea* ‘Frantziara’ (Arrar.), *errea berea* ‘herrira berera’ (Ig.). Herri horietan, indartsua da *i > e* bokal-irekitzea (ikus 2.1.5.), eta hortxe egon daiteke forma horien azalpena: lehenik, *-i > -e* gertatu da, eta ondoren gehitu zaio hitzari *-ra* adlatibo-marka (adibidez: *mendi > mende + -(r)a > mendea*).

2.1.3.5. *-i, -u* (C) + *bat* zenbatzailea. Eremu osoan betetzen da: *itxi berri et* ‘etxe berri bat’ (Gol.), *alanbrezko arku et* ‘alanbrezko arku bat’ (Bet.). Baina, bestalde, Basaburu Nagusiko Itsason eta Igoan, eta Imozko Goldaratzan, *-e* hizkiak bukatutako hitzei *bat* zenbatzailea eranstea, *-e* hori *-i* bihur-

tzen da, eta zenbatzailea asimilatu egiten da horren ondorioz<sup>11</sup>: *lezi et* ‘leize bat’ (Gol.), *urti etin* ‘urte batean’ (Gol.), *soka luxi et* ‘soka luxe bat’ (Its.), *miñe fuerti et* ‘min fuerte bat’ (Ig.). Gainerako herrietan, honela ahoskatzen dituzte horiek: *leze at*, *urte at*, *soka luxe at*, *min fuerte at*. Badago Basaburu Nagusiko Berueten, Larraungo hego-ekialdeko herri batzuetan eta Araitz-Beteluko goi-herrian (eta Goldaratzen, behin edo beste) gertatzen den beste bilakabide bat. Han, *bat* zenbatzailea asimilatzeaz gain (*bat* > *bet*), honelako formak sortu dira *i* > *e* bokal-irekitzearen ondorioz (ikus 2.1.5.): *opatu utela azare et* ‘topatu dutela azeri bat’ (Beru.), *alderde eten* ‘alderdi batean’ (Bar.), *pertz aunde et* ‘pertz handi bat’ (Bar.), *obe et* ‘ogi bat’ (Gai.), *jarri arre et-eo gañean* ‘jarri harri bat-edo gainean’ (Gai.). Azkenik, zenbaitetan, arestian aipatutako eremuan, aurretik *i* edo *u* bokalik egon gabe ere *a* > *e* asimilazioa bete da, *-e-z* bukatutako hitzetan hain zuzen ere: *azidente et* ‘akzidente (gazt. accidente) bat’ (Its.), *etxe et* ‘etxe bat’ (Iri.), *urdai puske et* ‘urdai puska bat’ (Azk.), *liste et* ‘lista (zerrenda) bat’ (Arri.).

Beraz, eremu osoko ezaugarria da *a* > *e* asimilazioa, baina, asimilazioa zein inguruetan betetzen den aztertzen hasita, joera bat baino gehiago suma daiteke gure eremuan. Hala, batetik, Imozko eta Basaburu Nagusiko ekialdeko herriek lotura garbia dute ekialderagoko Atetz, Ultzama eta Anue ibarrekin (cf. Ibarra 1995: 110-131), Muskitzek bereziki. Bestetik, bereziak dira batez ere Goldarazko, Basaburu Nagusiko (ekialdeko herriak izan ezik), Larraungo eta Araitz-Beteluko errealizazioak; bereziak diogu, aztertzen ari garen hizkeren ingurumarian bere-berezko ezaugarriak direlako. Beste hitz batzuetan esanda, asimilazioa ingurune batzuetan betetzen da eremuaren ekialdean, eta beste batzuetan, aldiz, eremuaren mendebalean.

Gure eremuaz gaindi, *a* > *e* asimilazioa eremu zabaleko ezaugarria dela erakusten dute datuek (cf. Zuazo 1998: 213 eta 2003: 209). Gure eremutik ekialdera, Erroibarreraino iristen da<sup>12</sup> (Camino 1997: 224). Aldaketa nabarriena Araitz-Betelutik mendebalerako hizkeretan dakusagu guk: asimilazioak behera egiten du Tolosaldeko eta Goierriko hizkeretan (ikus Hurtado 2001: 54-57). Ezin ezarri dugu, ordea, isoglosa garbirik; aldaketa graduala da, ibar batetik bestera jaitsi edo igo egiten da asimilazioaren maiztasuna, baina gradualki nolabait, ez baitago bat-bateko aldaketarik.

#### 2.1.4. *u* > *o* bokal-irekitzea

*u* > *o* eremu osoko ezaugarria da, baina, oro har, ez da hain maiz entzuten Etxalekutik eta Gartzarondik ekialdera (cf. Irizar 1992a: 28-29, 222). Lau ingurune nagusitan betetzen da:

2.1.4.1. 1., 2. eta 3. pertsona singularreko adizkiak. “Edun”-en aditz-laguntzaileetan, *dot* ‘dut’, *dok* ‘duk’, *don* ‘dun’, *do* ‘du’, *ttot* ‘ditut’, *ttok* ‘dituk’, *tton* ‘ditun’, *tto* ‘ditu’ formak sortu dira. Bestalde, 2. pertsona singularreko formetan, *-zu* > *-zo* gertatu da: *dozo* ‘duzu’, *ttozo* ‘dituzu’, *dizot* ‘dizut’, *dizo* ‘dizu’, *zaizo* ‘zaizu’, *zazkizo* ‘zaizkizu’, *zazo* ‘ezazu’, eta abar.

<sup>11</sup> Gertaera hori *-e-z* bukatutako hitzei *-a* mugatzailea gehitzean sortzen den *-ii* emaitzaren ondoriozkoa da, gure ustez (ikus 2.1.2.1.).

<sup>12</sup> Nahiz Artzibarko Arrietan eta Orotz-Betelun ere baden arrastorik (Artola 2006: 393-428).

2.1.4.2. “Zu” eta “gu” pertsona-izenordainak eta haien eratorriak (*zu-, gu- > zo-, go-*): *goe atte* ‘gure aita’ (Gol.), *goi yatii ematen tziun amatxik* ‘guri jateran ematen zigun amatxik’ (Ig.), *zootzat* ‘zuretzat’ (Ig.), *zoe zakurre* ‘zure zakurra’ (Beru.), *zoi ‘zuri’* (Beru.), *zok esan ziñuna* ‘zuk esan zenuena’ (Arri.), *zoe ondotik* ‘zure ondotik’ (Gai.).

2.1.4.1. eta 2.1.4.2. inguruneetako adibideak oso maiz ageri dira Imozko Goldaratzen, ekialdeko herriak ez beste Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun. Ekialdera joan ahala, horien maiztasuna jaitsi egiten da; hala, oso-oso bakanka ageri dira Erbitin, Gartzaronen, Orokietan eta Muskitzen. Ez dago esaterik halako herri jakin batetik ekialdera agertzen ez direnik; maiztasuna jaitsiz doa, baina ez bat-batean, gradualki baizik.

2.1.4.3. *-tu* eta *-du* partizipio-morfemak (*-tu, -du > -to, -do*). Basaburu Nagusiko iparraldean, Larraungo hego-ekialdeko herrietan eta Araitz-Betelun betetzen da. Isoglosatik kanpo daude Imotz osoa, Basaburu Nagusi gehiena (salbu iparraldeko herriak) eta Larraungo ipar-mendebala. Adibideak: *infaato* ‘gazt. enfadar’ (Arrar.), *zuito* ‘zuritu’ (Ig.), *preokopato* ‘gazt. preocupar’ (Bar.), *rekisato* ‘gazt. requisar’ (Ald.), *mozto* ‘moztu’ (Od.), *zaaldo* ‘zabaldu’ (Gai.), *belaunekato* ‘belaunikatu’ (Arri.), *izoto* ‘izutu’ (In.).

2.1.4.4. Hitz barnean eta hitz solteetan. Eremu osoan ageri dira adibideak (adibidez, *sokalde* ‘sukaldea’, *beando* ‘berandu’), baina bilakabidea bizkorragoa da Basaburu Nagusiko iparraldean, Larraungo hego-ekialdean eta Araitz-Betelun: *ezaoto* (Iri., Bar., Ui.) & *izaoto* (Arrar., Od.) ‘ezagutu’, *eakotsi* ‘erakutsi’ (Gai.), *biorrittu* ‘bihurritu’ (In.), *gaoze* ‘gauza’ (Azk.).

*u > o* Nafarroako mendebaleko ezaugarritzat hartu du Zuazok (1997: 410). Hala, oparoa da Leitza (Olano 1998: 64-68), Goizuetan (Zubiri eta Perurena 1998: 32) edota Basaburu Txikiko herri batzuetan (Apalauza eta Larkar 2001-2003). Gure eremuan, ekialdera joan ahala desagertuz doa; Imoztik ekialdera, ez dago bokal-irekitzearen arrastorik Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995: 98-104), ezta handik ekialdera ere. Bestalde, Araitz-Betelutik mendebalera ere ez da ageri Tolosaldean eta Goierriin, nahiz eta baden aztarnaren bat edo beste (Hurtado 2001: 65-66).

### 2.1.5. *i > e* bokal-irekitzea

*i > e* bokal-irekitzea Basaburu Nagusiko iparraldean, Larraungo hego-ekialdean eta Araitz-Betelun entzuten da; isoglosatik kanpo daude, salbuespenak salbuespen, Imotz osoa, Basaburu Nagusi gehiena eta Larraungo ipar-mendebala. Nolanahi ere, bilakabidea zein ingurunetan gertatzen den aztertuta, bada alde herri batzuetatik besteetara. *i > e* zazpi ingurunetan ageri da nagusiki:

2.1.5.1. Hitz bukaeran. Larraungo hego-ekialdeko herrietan (Albiasun ez) eta Basaburu Nagusiko iparraldean (Arrarats, Igoa eta Beruete) bildu ditugu adibideak: *beatze* ‘bederatzi’ (Ig.), *gorre-gorre* ‘gorri-gorri’ (Ig.), *iraaze* ‘irabazi’ (Arrar.), *yauntze* ‘jantzi’ (Beru.), *autse* ‘hautsi’ (Iri.), *iitxe* (Iri.) & *itxe* (Ald.) ‘itxi’, *naske* ‘noski’ (Ald.), *arrek bezin garbe* ‘hark bezain garbi’ (Bar.).

2.1.5.2. Ablatibo-morfema (*-tik > -tek*). Oso bizkorra da Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean: *itxe bakotxetek* ‘etxe bakoitzetik’ (Arrar.), *Larragatek* ‘Larragatik’ (Beru.), *giñenetek* ‘ginenetik’ (Od.), *amaostetek* ‘hamabostetik’ (Od.), *justotek atea da biziik* ‘justutik atera da bizirik’ (Iri.), *kanpotek* ‘kanpotik’ (Ald.).

2.1.5.3. Soziatibo-morfema (-*kin* > -*ken*). Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean ageri da hori ere: *eseni zopakén* ‘esnea zopekin’ (Od.), *inguruko erriken* ‘inguruko herriekin’ (Iri.), *oi zeeken etten ziñuin?* ‘hori zerekin egiten zenuten?’ (Iri.), *kanpokoaken* ‘kanpokoekin’ (Ald.), *lore ore ateken* ‘lore hori batekin’ (Arrar.), *edadekoaken* ‘edadekoekin, adinekoe-kin’ (Ig.), *Leitzeeken* ‘Leitzarekin’ (Beru.).

2.1.5.4. Datibo-morfema (-*ri* > -*re*). Larraungo hego-ekialdeko herrietan, Basaburu Nagusiko iparraldean eta Araitz-Betelun entzun dugu hori: *alkateé* ‘alkateari’ (Od.), *belarree buelta emateko* ‘belarrari buelta emateko’ (Od.), *eltze orre errepaatu* ‘eltze horri erreparatu’ (Bar.), *latz aire* ‘latz haiei’ (Arrar.), *gazti-gaztiire* “*letxal*” *esaten diote* ‘gazte-gazteari “letxal” esaten diote’ (Ig.), *amae laune itten* ‘amari lagun egiten (laguntzen)’ (Beru.), *zintzarrik-eta jartzén iiltzen tzen auntzee* ‘zintzarriak-eta jartzén ibiltzen zen ahuntzei’ (Gai.), *beste gurdi et seketaioae* ‘beste gurdi bat sekretarioari’ (Azk.).

2.1.5.5. Partitibo-morfema (-*rik* > -(*r*)*ek*). Adibide gutxi-gutxi batzuetan baino ez dugu bildu: *osoek* ‘osorik’ (Arrar.), *mandoek etzen* ‘mandorik ez zen’ (Beru.), *diruek* ‘dirurik’ (Beru.), *ezer e kasoe iñork ee* ‘ezer ere kasurik inork ere’ (Azk.).

2.1.5.6. Diptongoak (-*ai*, -*oi*, -*ei* > -*ae*, -*oe*, -*ee*). Araitz-Betelun da bilakabidea indartsuen, baina Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean ere ageri da bakanka. Hitz bukaeran gauzatzen da eskuarki, baina baita, tarteka, hitz barnean ere: *beere* ‘begira’ (Ig.), *eztot anbeste nabaetzen* ‘ez dut hainbeste nabaritzen’ (Iri.), *eroe* ‘erori’ (Ald.), *beak nae zun garaean* ‘berak nahi zuen garaian’ (Gai.), *sasoea* ‘sasoia’ (Bet.), *bi aldetati tiraka aetzen deen oik* ‘bi aldetatik tiraka aritzen diren horiek’ (In.).

2.1.5.7. Silaba trabatuan. Larraungo hego-ekialdean eta Basaburu Nagusiko iparraldean betetzen da batik bat: *amar aldes* ‘hamar aldiz’ (Od.), *nek asko izaten nittun* ‘nik asko izaten nituen’ (Iri.), *mendes* ‘mendiz’ (Arrar.), *irres* ‘irriz’ (Beru.).

Lehenik, isoglosa nabaria dugu Imozko Goldaratz eta Larraungo Oderitz herrien artean. Salbuespenen bat edo beste bada Goldaratzén, baina, oro har, Imotz guztian bezala, han ez dago *i* > *e* bokal-irekitzerik, eta Oderitzén, aldiz, indar handia du. Ikusi dugu, halaber, bokal-irekitzea indartsua dela Larraungo hego-ekialde osoan (Albiasun ez) eta Basaburu Nagusiko iparraldean. Araitz-Betelun ere indar berezia du, baina datibo-morfemetan eta diptongoetan soilik; bilakabideak kolore berezia ematen dio Araitz-Beteluko euskarari. Gainera, haren ondoko hizkera giputzetan ez da halakorik ageri; isoglosa trinkoa dugu hori ere. Azkenik, isoglosatik erabat kanpo daude Imotz, Larraungo ipar-mendebala eta Basaburu Nagusi gehiena (salbu iparraldeko herriak).

Zuazok Nafarroako mendebaleko ezaugarritzat hartu du *i* > *e* (1997: 410). Gure mugez haratago, *i* > *e* bada Basaburu Txikiko herri batzuetan (Apalauza eta Lakar 2001-2003), eta baita, askoz apalago, Leitzan (Olano 1998: 68-69) edota Bortzirietan (Zelaieta 2004: 236) ere.

### 2.1.6. *u* > *i* palatalizazioa

Gure eremuko ekialdeko muturrean ageri da *u* > *i* palatalizazioa, Imozko Muskitzen batik bat. Honako bi ingurune hauetan betetzen da:

2.1.6.1. *-tu, -du* partizipio-morfema + *-ko* geroaldiko morfema (*-tuko, -duko* > *-tiko, -diko*). Imozko Muskitzen baizik ez dugu bildu: *artiko* ‘hartuko’, *allatiko* ‘ailegatuko’, *kendiko* ‘kenduko’, *geldittiko* ‘geldituko’.

2.1.6.2. *-tu, -du* partizipio-morfema + *behar* (*-tu, -du* + *behar* > *-tiar, -diar*). Imozko Etxalekun, Oskotzen eta Muskitzen entzun dugu guk: *etzuten eskati arrik, ematen tzuten* ‘ez zuten eskatu beharrik, ematen zuten’ (Osk.), *kendi ar duu* ‘kendu behar dugu’ (Etxal.), *amabik pasti ar tzuten ure ekartze-ko* ‘hamabiak pasatu behar zuten ura ekartzeko’ (Etxal.), *paati ar ttut* ‘paratu behar ditut’ (Mus.).

Hain zuzen ere, Atetz eta Ultzama ibarretatik hurbilen dauden herrietan betetzen da palatalizazioa gure eremuan, indar handia baitu han palatalizazioak bi ingurune horietan, baita ekialderagoko Anuen ere (Ibarra 1995: 80-83). *u* > *i* palatalizazioa euskara nafarraren ezaugarritzat hartu du Zuazok; ez da, ordea, nafarreraren eremu osoko ezaugarria, eremu txikikoa baizik (2003: 112)<sup>13</sup>.

### 2.1.7. Hitz hasierako *oa-* > *goa-*

Hitz hasierako *oa-* bokal multzoari *g-* eransten zaio batzuetan, eta, ondorioz, *goa-* eta *gua-* ahoskerak sortu dira. Ezaugarria bizkorra da Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan, ahulxeagoa Larraunen, eta oso gutxitan agertzen da Araitz-Betelun: *goatze* ‘ohatzea, ohea’, *goazal* ‘ohe-azala’, *goartu* & *goarto* ‘ohartu’, *goarkaben* ‘oharkabean’ (Od.), *goaiñ* & *goai* (Mus.) ‘orain’, *goaiñik* & *guandio* (Bet.) ‘oraindik’.

Gure eremutik ekialdera, *goa-* bada Ultzaman (Ibarra 1995: 162) edota Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 48); Nafarroako ipar-ekialdean ere ezaguna da (Baztan, Malerreka... ikus Izeta 1996: 93 eta Apalauza eta Lakar 2001-2003), eta indartsua da Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 65, 87), baina ez Arakilen (Camino 2005: 276).

Ezaugarria ia desagertu egiten da Larraungo ipar-mendebalean, Araitz-Betelun eta handik mendebalera; kontuan izan, hala ere, *guaiñ* ‘orain’ adibidea ez dela arrotza ez gure eremuko mendebaleko herrietan, eta ez Gipuzkoako Tolosaldean edota Goierrin ere (K. E.).

### 2.1.8. Diptongoetako bilakabideak

Oro har, diptongoetan, mota bateko asimilazio eta disimilazioak gertatzen dira eremuaren mendebalean, eta beste mota batekoak, aldiz, ekialdeko muturrean.

2.1.8.1. *-e(C)u-* > *-iu-*, *-e(C)o-* > *-io-* eta *-e(C)a-* > *-ia-*. Era horretako asimilazio eta disimilazioak oso ohikoak dira gure eremuko lau ibarretan; alabaina, ekialdera egin ahala, haien maiztasuna jaitsi egiten da, eta, Muskitzen, esate baterako, oso bakanka entzuten dira. Bestalde, Imotz eta Basaburu Nagusia ibarrekin, eta Larraungo hego-ekialdearekin alderatuz, maiztasun-jaitsiera dago Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun. Hona zenbait adibide:

- *-e(C)u-* > *-iu-* asimilazioa: *iuri* ‘euria’ (Gol., Its., Arrar., Ig., Beru., Od., Iri., Arru., Ald.), *iru iuro* ‘hiru euro’ (Gol.), *iuneskoa* ‘ehunezkoa’ (Ig.),

<sup>13</sup> Sakonago aztertu beharreko kontua da hori. Izan ere, *-tiko* eta *-tiar* emaitzen hedadura geografikoa ez da bera: Aezkoan, esate baterako, *-tiar* bada, baina ez *-tiko* (Camino 1997: 300).

*San Miel iunin* ‘San Migel egunean’ (Bar.), *attiutxi* ‘aitabitxia’ (Gol., Arru.), *emati utenin* ‘ematen dutenean’ (Ig.), *seitzi ute* ‘segitzen dute’ (Urr.), *usaie iukitze ute* ‘usaina edukitzen dute’ (Lat.), *itti ute* ‘egiten dute’ (Lat., Beru.), *eamati ute* ‘eramaten dute’ (Beru.), *eatti ute* ‘edaten dute’ (Beru.), *errati ute* ‘erraten dute’ (Gar.), *gutxi bizi dee, baño bizi deenak iuskeas iñi ute an* ‘gutxi bizi dira, baina bizi direnek euskaraz eginen dute han’ (Gol.).

- *-e(C)o-* > *-io-* disimilazioa: *iozin* ‘edozein’ (Gol., Urr., Etxal., Od.), *iondu* ‘egon(du)’ (Gol., Ald.), *arbakin bakarrik etzen biotzen* ‘arbeekin bakarrik ez zen berotzen’ (Era.), *tximelduta ioten da* ‘zimelduta egoten da’ (Bar.), *sentitzi ozo* ‘sentitzen duzu’ (Urr.), *belaxe gastatzi ozo* ‘berehalaxe gastatzen duzu’ (Gol.), *atte usti ot jaiio zela Oskotzen* ‘aita uste dut jaiio zela Oskotzen’ (Gol.).
- *-e(C)a-* > *-ia-* disimilazioa: *ian* ‘edan’ (Gol.) & *iateko* ‘edateko’ (Od.), *iantzun* ‘erantzun’ (Gol.), *iaman* ‘eraman’ (Gol., Urr., Etxal., Od.), *iakutsi* ‘erakutsi’ (Gol., Etxal.), *Biamendi* ‘Beramendi’ (Gol.), *iarreik* ‘egarrik’ (Gol.), *iauntsi* ‘erauntsia’ (Its.), *iaki* ‘ebaki’ (Its., Od.).

Gure eremutik kanpo, halakoak ohikoak dira Sakanan (Erdozia 2001: 58-61, 89), baina ez dirudi halakorik dagoenik beste hizkeretan. Hala, ekialde-  
ra, ez dago halakorik ez Atetzen ez Ultzaman (Ibarra 1995: 152-153); men-  
debalera, ez da ageri Araitz-Betelu ondoko hizkera giputzetan; eta,  
iparraldera, ez dago ez Leitzan ez Basaburu Txikian.

2.1.8.2. *-e-nd-u-* > *-au-* disimilazioa. Imozko ekialdeko herrietan entzun  
dugu hori; alegia, Etxalekun, Oskotzen eta Muskitzen. Aditz-egitura jakin  
batzuetan sortzen da: *plazako ortan jartze aute* ‘plazako horretan jartzen du-  
te’ (Etxal.), *naiko lan ibiltza ute* ‘nahiko lan ibiltzen dute’ (Etxal.), *goai re ala  
ittau* ‘orain ere hala egiten dugu’ (Mus.), *Corte Inglés iña uten tokien* ‘Corte  
Inglés eginen duten tokian’ (Mus.).

Disimilazio mota hori ohikoa da Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995: 153-  
155). Nafarroako ipar-ekialdeari dagokionez, Baztanen ere badira halakoak<sup>14</sup>.  
*-eu-* > *-au-* bilakabidea ohikoa da Nafarroa Garaiko zenbait hizkeretan; gure  
eremuan, tankera horretako *daus* & *yaus* baino ez dugu bildu (Mus., Osk.,  
Urr., Lat., Its.), baina *-eu-* ageri zaigu gainerako adibideetan (edo, asimila-  
zioaren ondorioz, *-iu-*).

### 2.1.9. *Hiatoa murriztea*

Hiatoa murriztea ohikoa da gure eremuko lau ibarretan. Alabaina, ere-  
muko ekialdeko muturrean, alegia Muskitzen, hobeki eutsi diete hiatoei.  
Joera bera sumatu du Ibarrek Atetzen eta Ultzaman (1995: 165-168).

2.1.9.1. *-ue-* > *-u-*. Muskitzen, bere horretan uzten da hiatoa “edun” adi-  
tzaren adizkietan (*nuen* ‘nuen’, *zuen* ‘zuen’, *giñuen* ‘genuen’...) edota ‘-u +  
-ak’ egituran (*soldaduek* ‘soldaduak’, *neguek* ‘neguak’...). Gainerako herrie-  
tan, hiatoa murriztu egin da: *nun*, *zun*, *giñun*... edota *soldaduk*, *neguk* dira  
hangoak.

<sup>14</sup> Maite Lakarrek emandako datua (cf. Lakar, M. eta Telletxea, A. 2003-2004). Edu Zelaietak da-  
tua berretsitu digu: *errataute* gisakoak ohikoak dira Baztanen, baina *errateunte* gisakoak erabiltzen dituz-  
te Bortzirietan, Malerrekian eta Bertizaranan.



2.1.9.2. *-ie- > -i-*. Murriztu gabeko forma dago Muskitzen: superlatiboaz eratutako formetan (*txikiena* ‘txikiena’, *aundiena* ‘handiena’...), “jakin” aditzaren forma trinkoetan (*nakien* ‘nekién’, *giñakien* ‘genekien’...) edota ‘-i + -ak’ egituran (*gurdiak* ‘gurdiak’, *nekazariak* ‘nekazariak’...). Forma murriztua dugu, aldiz, gainerako herrietan: *txikina*, *aundina*, *nakin* & *nekin*, *giñakin* & *giñekin*, *gurdik*, *nekazarik*... Azkenik, *aiek* da hirugarren pertsona pluraleko izenordaina Muskitzen (eta baita, murriztutakoarekin txandaka, Oskotzen eta Etxalekun ere), eta *aik* gainerako herrietan.

### 2.1.10. Sinkopa eta aferesia

Sinkopa eta aferesia bilakabide ahulak dira gure eremuan, baina bada zer edo zer. Batetik, Imotzen eta Basaburu Nagusian, ohikoak dira *arpatu* ‘harrrapatu’ eta *Trintete* ‘Trinitatea’ aldaera sinkopatuak; *burko* ‘burukoa, gazt. almohada’ bildu dugu bi ibar horietan eta Larraunen; eta eremu osoan erabiltzen da *pa(a)stu* ‘pasatu’.

Baina sinkopak indar handixeagoa du eremuko ekialdeko herrietan; alegia, Imozko Muskitzen, Oskotzen eta Etxalekun, eta Basaburu Nagusiko Oroketan, Erbitin eta Gartzaronen. Honako adibide hauek bildu ditugu han: *atra* ‘atera’, *abrats* ‘aberatsa’, *bedratzi* ‘bederatzi’, *biarna* ‘bigarrena’, *iruarna* ‘hirugarrena’, *abre* ‘aberea’ eta *batrez* ‘batere ez’. Betiere sinkopatu gabeko aldaerekin batera agertzen dira adibide horiek.

Aferesiak ere indar handixeagoa du ekialdeko herrietan: *makome* & *makume* ‘emakume’, *kusi* ‘ikusí’, *torri* ‘etorri’, *zautu* ‘ezagutu’, *su man* ‘su eman’, *baki* ‘ebaki’.

Imotz eta Basaburu Nagusi ondoko Atetzen, Ultzaman eta Anuen, pittin bat indartsuagoak dira sinkopa eta aferesia (Ibarra 1995: 131-138), baina bilakabide ahulak dira beste hizkera batzuen aldean (Erronkari, Zaraitzu, Aezkoa, Malerreka, Bortziriak... cf. Mitxelena 1977: 160-165). Zuazok euskara nafarraren ezaugarritzat hartu ditu sinkopa eta aferesia (1998: 215-216 eta 2003: 111).

## 2.2. Fonologia: kontsonanteak

### 2.2.1. Asimilaziozko palatalizazioa

Asimilaziozko palatalizazioa indartsua da gure eremu osoan, baina, Muskitzen, palatalizatu gabeko zenbait adibide entzun dugu: *aite* ‘aita’, *zerbait ee* ‘zerbait ere’, *nonbait ee* ‘nonbait ere’, *norbait ee* ‘norbait ere’. Horiek *atte*, *zerbatte(e)*, *nonbatte(e)*, *norbatte(e)* ahoskatzen dira gainerako herrietan.

O. Ibarrek dakarrenez, Atetzen eta Ultzaman ere badira palatalizatu gabeko forma horiek (1995: 306); beraz, Muskitzen, Atetzen eta Ultzaman hasten da trantsizioa, palatalizazioa urritu egiten baita handik ekialdera. Irizarrek hegoaldeko goi-nafarreraren ezaugarritzat hartu du asimilaziozko palatalizazioa apalagoa izatea (1981b: 264), nahiz eta gaur egun badakigun badela palatalizazioa hizkera horietako batzuetan (Camino 2003: 84). Gure eremuko gainerako herrietan eta inguruko hizkeretan (Tolosaldea, Leitza eta Areso, Sakana, Basaburu Txikia...), indartsua da asimilaziozko palatalizazioa.

### 2.2.2. /j/ *hotsaren ebakera*

Bi ebakera mota eman ditu /j/-k gure eskualdean: [j] herskari sabaikari ahostuna dugu Imozko Muskitzen eta Basaburu Nagusiko Erbitin, Gartzaronen, Berueten, Arraratsen, Igoan eta Orokietan; eta [x] igurzkari belar ahoskabea, berriz, Imotzen (salbu Muskitzen), Larraunen, Araitz-Betelun eta Basaburu Nagusiko hegoaldean.

[x] mendebaletik (eta gaztelaniatik) indartsu sartu den ezaugarria da; izan ere, oraindik ere [j] ebakera entzun daiteke, oso tarteka bada ere, Imozko Oskotz herrian. Alegia, gure ustez, horixe izango zen garai bateko ebakera Oskotzen ere (eta baita, beharbada, Imotzen eta Basaburu Nagusian ere), baina gaur egun (ia) osotara gailendu da [x].

[j] ebakeraren hedadurari dagokionez, Muskitz-Gartzaroren-Erbiti-Orokietan lerrotik ekialdera ageri da, eta baita gure eremutik iparraldera diren Basaburu Txikian (Apalauza eta Lakar 2001-2003) eta Leitzan (Olano 1998: 13) ere. Gure eremutik hegoaldera, *x*- ebakera sabaiaurrekoa ere bazen Txulapainen, Arakilen bezala, nahiz Arakilen belarra ageri den XX. mendearen bigarren erdian (Camino 1999: 45 eta 2005: 272, *EI* 1984: 240-241).

### 2.2.3. *d > r kontsonante-aldaketa*

Larraunen eta batez ere Araitz-Betelun da bilakabidea indartsuen: bi ibar horietan jaso ditugu *iri* ‘idia’, *bire* ‘bidea’, *auro* ‘agudo’, *orai* ‘hodeia’, *usario* ‘usadioa’, *pa(g)ari* ‘pagadia’, *gaztañeri* ‘gaztainadia’, *piñuri* & *piñuari* (Azp.) ‘pinudia’, *lori* ‘lodia’, *edarekoak* ‘edadekoak’ (Azp.), eta Araitz-Betelun baizik ez ditugu entzun *garari* ‘garadia, garo-lekua’ (Arri.), *Beraio* ‘Bedaio’ (orok.), *bolara* ‘bolada’ (Gai.), *pasara* ‘gazt. pasada’ (Bet.), *inbiri* ‘inbidia’ (Bet.), *gisaru* ‘gisadua’ (Gai.), *sagrarué* ‘gazt. sagrado’ (Gai.), *maldare* ‘gazt. maldad’ (Bet.), *bireko girariik obena* ‘bideko gidaririk hoberena’ (Gai.), *durik eztao jongo zela* ‘dudarik ez dago joango zela’ (Azk.), *Santa Aera* ‘Santa Ageda’ (Arri.), *jan berdea beti ra belaxkaoa* ‘jan berdea beti da belaxkagoa’ (Azk.), *oañ plastikoa[k] taore* ‘orain plastikoa daude’ (Gai.), *arren inguruen bazeaoren zeak, iur kozkorrak-eta bazeaoren* ‘haren inguruan bazeuden zerak, egur kozkorrak-eta bazeuden’ (Gai.).

Imotzen eta Basaburu Nagusian, *d*-ri eutsi diote kasu guztietan.

Zuazok euskara giputzaren ezaugarritzat hartu du *d > r* (1998: 217-218, 1997: 415, 2006: 67), nahiz atzera egiten ari den ezaugarria dela onartzen duen; hala da gure eremuan ere. Tolosaldean (eta, orobat, Gipuzkoatik) hurbilen dauden herrietan dago, gure eremuan, *d > r* egiteko joera; joera hori Nafarroa Garaiko beste hizkera batzuetan ere bada, Gipuzkoatik hurbil daudenetan hain zuzen, hala nola Leitzan (Olano 1998: 88-89), Goizuetan eta Aranon (Zubiri eta Perurena 1998: 45) edota Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 143)<sup>15</sup>.

<sup>15</sup> Gipuzkoatik eta Nafarroako mendebaletik kanpo, baina, badira *d > r* erakusten duten adibideak: hego-nafarreran (Camino 2003: 62; cf. Camino 1999: 52), Ultzaman (Ibarra 1995: 190-191), Esteribar-Erroibarren (Ibarra 2000: 66) edota Aezkoan (Camino 1997: 351-353). Baina eremu batean baino gehiagotan sortutako berrikuntza beregainak dira, gure ustez. Mitxelena berak dio fonikoki arrunta eta espero izatekoa dela *d* eta *r* nahastea (1977: 227-229).

Kontrako bilakabidea ere bada Larraunen eta Araitz-Betelun ( $r > d$ ): *de* 'ere' (& *betide*, *baita de*, *ala de*), *aide* 'airea', *ude* 'ura', *beida* 'behera' (azken biak Araitz-Betelun soilik). Antzeko adibideak daude euskara giputzean: Tolosaldeko hegoaldean (Hurtado 2001: 67-68), Zaldibian (Etxabe eta Garmendia 2003: 57) edota Ordizian (Etxabe eta Garmendia 2004: 58).

#### 2.2.4. *f > p kontsonante-aldaketa*

Eremu osoan ageri dira adibideak (*pesta* 'festa', *prexko* 'frexko', *alper* 'alferra', *pralle* 'fraidea'...), baina apika indartsuagoa da bilakabidea Araitz-Betelun: *pamili* 'familia' (Uzt.), *pantasié* 'gazt. fantasía' (Gai.), *palta* 'falta' (At.) & *paltato* 'faltatu' (Azk.), *San Preiñ* 'San Fermin' (Azk.), *plakato* 'flakatu' (Gai.), *plajo* 'gazt. flojo' (Gai.), *portunatu* 'fortunatu, suertatu' (Gai.), *porma* 'forma' (Gai.), *perie* 'feria' (In.).

Gazteek gero eta gutxiago erabiltzen dituzte *p*-dunak; nolahi ere, aldaera batzuk egonkortu egin dira nolabait: esate baterako, Araitz-Beteluko gazteek normal-normal erabiltzen dute *apari* 'afaria' hitza.

Euskara giputzaren ezaugarria da *f > p* (Zuazo 1998: 217-218).

#### 2.2.5. *Bokal arteko kontsonanteen egonkortasuna*

Bokal arteko herskari ahostunek (*b*, *d*, *g*) eta ttak (*r*) kontsonanteak desagertzeko joera dute gure eremuan, hitz barnean zein hitzen mugan: *saardi* 'sagardia', *ratotto* at 'tartetto bat' (Etxal.), *etorre a* 'etorri da' (Ig.), *etxea* 'etxera' (Bet.).

Baina gauzak aldatzen hasten dira Muskitzen: han, bokal arteko kontsonanteak egonkorragoak dira. Joera bera dute Ultzama, Atetz eta Anue ibarretan (Ibarra 1995: 176-190). Gure eremutik mendebalera, oro har, areagotu egiten da kontsonanteak galtzeko joera. Ez dago bat-bateko aldaketarik inon; aldaketa graduala da, poliki-poliki gauzatzen dena.

#### 2.2.6. *-nd- eta -nt- kontsonante taldeak*

*-n-z* bukatutako aditzari *-ta* partizipioa eranstea, *-nta* sortu da Goldaratz ez beste Imozko herrietan eta Beruete ez beste Basaburu Nagusiko herrietan: *eonta* 'egonda', *inta* 'eginda', *emanta* 'emanda', *izanta* 'izanda', *etzanta* 'etzanda'... Aldiz, *-nda* dago Goldaratz, Beruete, Larraunen eta Araitz-Betelun: *eonda*, *inda*, *emanda*, *izanda*, *etzanda*...

Herskari ahoskabedun formak (*-nta*) daude Ultzama aldean (Ibarra 1995: 202), Aezkoan (Camino 1997: 351), Goizuetan (Zubiri eta Perurena 1998: 158) eta Baztan-Bidasoa aldean (Zelaieta 2005: 288). Gipuzkoan, Donostia-tik eskuin ere badira halakoak (Camino 2000: 72), hala nola Oiartzunen (Fraile eta Fraile 1996: 51). Aitzitik, ahostundunak (*-nda*) daude Gipuzkoako gainerako hizkeretan eta baita handik hurbil diren Nafarroako zenbaitean ere: Leitza eta Areso (Olano 1998: 90), Arano (Zubiri eta Perurena 1998: 158), Sakana...

#### 2.2.7. *-st- eta -rtz- kontsonante taldeak*

Gaur egun, *-st-* kontsonante taldea da nagusi gure eremuan: *beste* 'beste', *bost* 'bost', *este* 'hestea', *osteun* & *ostiun* 'osteguna', *ostiel* & *osteel* 'ostirala'.

Alabaina, *ortzilleria* bildu dugu Muskitzen, eta *ortzillera* Oskotzen eta Etxalekun. Horretaz gain, batetik, *ertze* bildu du Ibarrak Muskitzen (1995: 230); bestetik, Etxaidek *orseune* dakar Etxalekurako (1989: 51), eta *Elk ortzegun* bildu du Gartzaronen (1984: 334).

*-rtz-* gure eremutik ekialderako hizkeretan erabiltzen da: Etxaideren da-tuetan, Ateztik hasita Zaraitzuraino gutxienez ageri da (1989: 51, 52, 140, 344-345, 350), eta Lapurdin eta Nafarroa Beherean ere bada (Zuazo 1998: 222). Basaburu Txikian, *-st-* da nagusi, baina bada *-rtz-* duen adibideren bat edo beste. Gainerakoan, *-st-* dugu Leitzan eta Areson, Sakanan, eta orobat gure eremutik mendebalera.

### 2.3. Izenaren morfologia

#### 2.3.1. Singularra eta plurala bereiztea

Funtsean, bi eremu nagusi bereiz daitezke: Muskitz eta gainerako herriak. Muskizko deklinabidean (eta, gero eta gehiago, Basaburu Nagusiko ekialdeko herrietan), ez dago inolako bereizkuntza fonologiko edo morfologikorik singularraren eta pluralaren artean: hango azentuak ez du balio bereizlerik, eta sinkretismoa erabatekoa da. Esate baterako, ‘ardiarendako’ nahiz ‘ardien-dako’ –alegia, singularra nahiz plurala– izan daiteke *ardiendáko*. Ezaugarri horretan, Atezko eta Ultzamako hizkerai lotuta dago Muskizkoa (Ibarra 1995: 386-387). Bestalde, Muskizko azentuera ekialdekoa dela ondorioztatu dute Hualdek (1997: 73-108) eta Gamindek (1998: 24).

Gainerako herrietan, batetik, azentuaren arabera eta, bestetik, bokal soilen eta luzeen arabera, bereizten dira singularra eta plurala. Alegia, *álabaantzát* ‘alabarentzat’ dugu singularrean, eta *àlabántzat* ‘alabentzat’ pluralean; *éskuùkin* ‘eskuarekin’ singularrean, eta *èskúkin* ‘eskuekin’ pluralean. Adibide horietan, bokal luzea ageri da singularreko formetan, eta soila, aldiz, pluralekoetan. Azentuari dagokionez, oro har, azentu indartsua lehen silaban dago singularrean, eta azken silaban edo azken aurrekoan, berriz, pluralean. Hualdek erdialdeko azentueran txertatu ditu Imotz eta Basaburu Nagusia, baina ez du argibiderik eman Larrauni eta Araitz-Beteluri buruz (1997: 109-147). Gerorago, Gamindek erdialdeko azentueran sailkatu ditu lau ibarrak, nahiz Araitz-Beteluko pixka bat desberdin dakusan (1998: 27-29). Nolanahi ere, bi ikertzaileak ohartu dira gure eremuko azentuera berezia dela, eta, erdialdeko azentueran sailkatu badute ere, ezaugarri bereziak aitortu dizkiote. Besteak beste, gure eremuan, azentu indartsua (´) eta bigarren mailakoa (˘) bereizi dituzte.

Arestiko bereizkuntza hori Goldaratzen, Basaburu Nagusi gehiengan, Larraunen eta Araitz-Betelun egiten dute. Imozko gainerako herriak trantsizio-gune dira: han, ez dago bokal luze eta soilen araberako bereizkuntzarik, baina bai azentuaren araberakoa, azentuak balio bereizlea baitu han.

#### 2.3.2. Erakusle plural deklinatuak

Erakusle pluralak deklinatzen direnean, pluralari dagokion *-k-* morfema bere horretan gelditzen da Imotzen eta Basaburu Nagusi gehiengan (iparraldeko herriak dira salbuespena): *oketan* ‘hauetan’, *oketaa* ‘hauetara’, *oketakoa* ‘hauetakoa’, *oiken* ‘horien’, *aiken* ‘haien’... Hiru graduetako erakusleen adibideak bildu ditugu.

Basaburu Nagusiko iparraldean, Larraunen eta Araitz-Betelun, aldiz, sistema zaharrari eutsi diote, eta *-k-* morfemarik gabekoak erabiltzen dituzte: *otan* ‘hauetan’, *otaa* ‘hauetara’, *otakoa* ‘hauetakoa’, *ain* ‘haien’.

*-k-*dunak Ultzaman ere badira, baina lehen graduko erakusle pluraletan soilik (Ibarra 1995: 328-330). Badugu Atezko Zigandako adibide bat ere, EAELn jaso: *nor tor tzen atzo itxi oketara* ‘nor etorri zen atzo etxe hauetara’. Iparralderago, halakoak ezagunak dira Basaburu Txikiko Saldiasen, Malerrekan eta Bertizaranan, hirugarren graduko erakusle pluraletan batez ere (Apalauza eta Lakar 2001-2003), eta, Zelaietaren arabera, baita Baztanen ere, baina ez hainbeste Bortzirietan (2004: 241)<sup>16</sup>. Hondarribian eta Irunen ere badira, Sagarzazuk bildu duenez (2005: 69). Gure eremuaren mugetan, *-k-*gabeak daude Leitzan eta Areson (Olano 1998: 126, 141), eta orobat Gipuzkoan.

### 2.3.3. Instrumental kasua

Kasu instrumentaleko atzizki txistukaria apikaria (*-s*) da Imotz eta Basaburu Nagusi osoan, eta Larraun gehiengan: *tripas bueltan* ‘tripaz bueltan’ (Lat.), *mendes* ‘mendiz’ (Arrar.), *gabes* ‘gauetz’ (Bar.). Hain zuzen, lepokaria (*-z*) entzun daiteke, apikariarekin txandaka, Larraungo ipar-mendebaleko Uitz, Albiasu, Azpirotz eta Errazkin herrietan. Araitz-Betelura ezkerreko, lepokaria besterik ez da erabiltzen: *ola eñez da esanez* ‘horrela eginez eta esanez’ (At.), *zakuzko poltsa* ‘zakuzko poltsa’ (Gai.).

Nafarroako zenbait hizkeratako ezaugarria da instrumentaleko txistukari apikaria; euskara nafarraren ezaugarritzat hartu du Zuazok, nahiz eta berak euskara nafartzat hartzen duen eremuko iparraldea (Bortziriak, Malerreka, Bertizarana, Baztan) isoglosatik kanpo egon (1998: 216 eta 2003: 111). Gure eremuan, Larraungo mendebalean ezarri dugu ezaugarriaren muga; handik ekialdera, apikaria erabiltzen da Basaburu Nagusian eta Imotzen, eta, ekialderago, baita Ultzaman eta Atetzen ere (Ibarra 1995: 259). Apikaria dugu are ekialderago ere (Artzibar, Erroibar, Esteribar, Aezkoa), baita orobat hego-nafarreraren eremuan ere, nahiz eta lepokariarekin txandaka ageri den zenbait hizkeratan (Camino 2003: 86-87). Caminok Nafarroako erdiguneko ezaugarritzat jo du *-s* apikaria (2003: 86-87), eta zuzen deritzogu. Imoztik hegoaldera, lepokaria zegoen Txulapainen (Camino 1999: 64 eta 2003: 87). Gure mugez iparraldera, ia beti lepokaria dugu Basaburu Txikian, Areson eta Leitzan (B. L.).

### 2.3.4. Destinatibo kasua

Destinatibo-morfema *-tako* da Imotz eta Basaburu Nagusi gehiengan, baina *-tzat* morfemarekin txandaka ageri da: *itxeoandako* ‘etxeoendako’ (Gol.), *itako* ‘hiretako’ (Gol.), baina *amaantzat* ‘amarentzat’ (Gol.). Aldiz, *-tzat* besterik ez da entzuten Berueten, Igoan, Larraunen eta Araitz-Betelun: *neonentzat* ‘neronentzat’ (Ig.), *mojantzat izaten tzen* ‘mojentzat izaten zen’

<sup>16</sup> Zelaietak ahoz argitu digunez, Baztan-Bidasoa osoan *-k-* duten formak daude “nor”, “nori”, “noren”, “norekin”, “norentzat” eta “norengan” galderetan; baina, gainerakoetan, *oketan* eta *oketaik* gisakoak daude Baztanen, eta *otan*, *otara*, *otik* gisakoak Bidasoako hizkeretan.

(Ui.), *emengo zotzak beentzat, eta Astunalde Uzteikoantzat* ‘hemengo zotzak berentzat, eta Astunalde Uztegikoentzat’ (Gai.).

Aldaketa graduala da: geografian mendebalerantz egin ahala, gero eta gutxiago entzuten da *-tako*, eta, alderantziz, ekialderantz jo ahala, gero eta gutxiago entzuten da *-tzat*. Hain zuzen, *-tako* da nagusi Imoztik eta Basaburu Nagusitik ekialdera, Atetz, Ultzama eta Anue ibarretan (Ibarra 1995: 379-381), eta baita Erroibarren eta Esteribarren (Ibarra 2000: 105), Artzibarren (Arana 2004: 141), Aezkoan eta Zaraitzun (Camino 1997: 380-382) ere. Trantsizioa, beraz, Imotz eta Basaburu Nagusia ibarretan hasten da; handik mendebalera, *-tzat* nagusitzen da Larraunen eta Araitz-Betelun, eta baita haien iparraldeko mugan diren Leitzan eta Areson (Olano 1998: 155) ere. Basaburu Nagusiaren iparraldean, *-tzat* da nagusi Basaburu Txiki gehiengan, biak baitaude Beintza-Labaienen (B. L.). Gure eremutik hegoaldera, *-tako* zegoen Txulapainen (cf. Camino 1999: 63), eta horixe dago Sakanan (Erdozia 2001: 212-213). Zuazok *-tako* morfemaren hedadura zehaztu du (2006: 123): Nafarroako hainbat tokitan erabiltzeaz gain, Debagoiengan, Debako erdigunean, Mallabian, Durangaldean, Legazpian, Zerainen, Zegaman, Legution eta Ipar Euskal Herriko zenbait hizkeratan erabiltzen da.

### 2.3.5. Ablatibo singular kasua

*-tik* nahiz *-ti* morfemak ageri dira gure eremuan, baina ez dute eremu geografiko jakinik osatzen, biak nahaska ageri baitira. Baina beste morfema bati erreparatuko diogu: Basaburu Nagusiko Itsason eta Berueten, Larraungo Baraibarren, Iribasen, Arruitzen, Aldatzen, Gorritin, Azpirotzen eta Errazkinen, eta Araitz-Beteluko herri guztietan, *-tio* morfema bildu dugu *oandio*, *oanddo* ‘oraindik’ adibidean. Morfema hori indartsua da Gipuzkoako Goierriin, eta ahulxeagoa Tolosaldeko hegoaldean (Hurtado 2001: 82-85); Nafarroan, ezaguna da Areson, baina ez Leitzan (Olano 1998: 14). Nolanahi ere, gurean, “oraindik” aditzondoarekin bildu dugu soilik, eta ez ablatiboan deklinatutako hitz arruntetan (\*\**etxetio*, \*\**emendio*...).

### 2.3.6. Ablatibo plural eta mugagabe kasua

Imozko ekialdean, *-taik* erabiltzen da Muskitzen, eta *-tatic* nahiz *-taik* biak txandaka ageri dira Oskotzen eta Etxalekun: *gazteak giñelaik, denetaik itten giñun* ‘gazteak ginelarik, denetarik egiten genuen’ (Osk.), *baztar guzitaik ateatzen tzeen* ‘bazter guzietarik ateratzen ziren’ (Etxal.), *amar euntaik izaten tzen* ‘hamar egunetarik izaten zen’ (Mus.). Imozko gainerako herrietan, *-tatic* besterik ez dugu entzun, Basaburu Nagusian, Larraunen eta Araitz-Betelun bezala.

*-ta(r)ik* atzizkiak hedadura zabala da Nafarroa Garaian: gure eremutik ekialdera, Atetzen eta Ultzaman (Ibarra 1995: 400-404), Artzibarren (Arana 2004: 149) edota Aezkoan (Camino 1997: 397) bada; Nafarroako ipar-ekialdean, Baztanen ere bada (Lakar eta Telletxea 2003-2004); hegoaldera, Txulapainen ere bazen (Arana 2006: 81, 84), eta baita hego-nafarrera osatzen duten hizkera askotan ere (Camino 2003: 81-82). Nafarroa Garaiko mugetatik haratago ere bada; Lapurdin eta Nafarroa Beherean (Camino 2004b: 468), esate baterako. Zuazok garbi adierazi du banaketa: *-tatic* dugu Euskal Herri-

ko mendebaleko eta erdiguneko hizkeretan, eta *-tarik*, aldiz, ekialderagokoe-tan eta Ipar Euskal Herrian (2003: 190).

### 2.3.7. *Motibatibo kasua*

*-gati* atzizki zaharra zein *-gatik* berriagoa erabiltzen dira gure eremuan. Baina *-gatio* morfema ere entzun dugu, Berueten eta Araitz-Betelun, hain zu-zen ere: *kantu asko ikasten tzuten umek, baño orrengatio, e!* ‘kantu asko ikas-ten zuten umeek, baina horratik, e!’ (Beru.), *arraotze-txuringoa naastu eus-teatio* ‘arrautza-txuringoa nahasi eusteagatik’ (Gai.).

*-gatio* atzizkiak ablatiboko *-tio*-ren hedadura bertsua du (ikus 2.3.5.).

### 2.3.8. *Adlatibo kasua*

*-(r)a* (> *-(r)e*) da adlatibo singularreko morfema gure eremuan: *itxea* ‘etxera’ (Etxal.), *Kalifornire* ‘Kaliforniara’ (Etxal.), *kanposantue* ‘kanposantu-ra’ (Iri.). Alabaina, Larraungo Baraibar, Arruitz, Uitz, Albiasu eta Errazkin herrietan, eta Araitz-Beteluko Gaintzan eta Intzan, *-ara* eta *-era* bukaerak bildu ditugu zenbait formatan: *kanpoara* ‘kanpora’ (Bar., Ui., Gai.), *Lekun-berriera* ‘Lekunberrira’ (Arru.), *jokuera* ‘jokora’ (Ui.), *ateara* ‘atera’ (Alb.), *errutiera* ‘urrutira’ (Erra.), *jeztokiera* ‘jeztokira’ (Gai.), *leioara* ‘leihora’ (Gai.), *altureara* ‘aturara (altuerara)’ (Gai.), *txerri-aspilleara* ‘txerri-azpilara’ (In.).

Ez dakigu zein den berrikuntza horren iturria, baina baliteke halakoak berranalisiaren ondorioz sortu izana: hala, *kanpoa* ‘kanpora’ genuke lehenik, horri *-ra* morfema gehitu zaio ondoren, eta *kanpoara* sortu da azkenik. Guk dakigula, inguruko hizkeretan behintzat ez dago halakorik, eta eremu murri-tzeko berrikuntza delakoan gaude.

### 2.3.9. *Adlatiboaren gainean eraikitako erakusleak*

*-rat* morfemaren gainean sortutako formak erabiltzen dira Imotzen eta Basaburu Nagusian: *onata* ‘honata, honantza’, *orrata* ‘horrata, horrantza’, *a(r)ata* ‘harata, harantza’. Baina *-rat* erakusletan soilik erabiltzen da; ez dago *\*\*errirata* gisako adibiderik, *erri aldea* ‘herri aldera’ gisakoak erabiltzen baitira.

Larraunen eta Araitz-Betelun, *-runtz* morfemaren gainean eraikitako for-mak baliatzen dituzte: *onontza* & *onuntza* ‘honantza’, *auntza* & *autza* ‘ha-rantza’...

*onata* gisakoak gure eremutik ekialderako hizkeretan nahiz Nafarroako ipar-ekialdean erabiltzen dira, Basaburu Txikia barne (B. L.). *onuntz* gisako-ak, aldiz, Larraungo eta Araitz-Beteluko iparraldeko mugan diren Leitza eta Areson (Olano 1998: 128, 145), Sakanan (Erdozia 2001: 221) eta orobat Gi-puzkoako eta Bizkaiko hizkeretan erabiltzen dituzte<sup>17</sup>.

<sup>17</sup> *-runtz* ez da, ordea, edozein ingurunetan erabiltzen; adizlagunetan soilik ageri da, esate batera-ko, Gipuzkoako hizkeretan (Hurtado 2001: 85-86 eta Zuazo 1998: 205). Mendebaleko euskararen ego-  
era ere ez da bat eta bera morfema horri dagokionez, *-(e)rantz*a baitago mendebalean eta *-(e)rutz* ekial-  
dean (Zuazo 1998: 205).

### 2.3.10. *Erdal -on atzizkia*

-on eman du gure eremu osoan erdal -on atzizkiak: *salmona* ‘gazt. salmón’ (Gol.), *rekesona* ‘gazt. requesón’ (Osk.), *kollarona* ‘gazt. collarón’ (Arrar.), *melon* ‘meloia’ (Iri., Gorr.), *limona* ‘limoia’ (Gai.).

Zuazok Nafarroa Garai gehieneko ezaugarritzat hartu du -on bukaera (1998: 214 eta 2003: 111). Nafarroaren eta Gipuzkoaren arteko isoglosa nabaria da gure eremuko mendebalean: Araitz-Betelu ondoan dauden hizkera gipuztetan (Tolosaldean, Goierri, eta orobat Gipuzkoan), -oi erabiltzen da.

Bestalde, latinezko -onem atzizkia duten hitzetan, -ore eta -ure bukaerak ageri dira Imozko, Basaburu Nagusiko eta Larraungo (salbu Errazkin) adibide hauetan: *arrazore* & *arrozore* & *arrazure* ‘arrazioa’, *arrazore* & *arrotore* & *arrazure* ‘arrazioa’. Horiekin batera, *arrazobe* eta *arrazobe* entzun ditugu Basaburu Nagusiko Arraratsen eta Larraungo Albiasun; hain zuzen, -obe ohikoa da Leitzan eta Areson (Olano 1998: 76-77). Errazkinen eta Araitz-Betelun, *arrazoi* eta *arrazoi* erabiltzen dira, baita handik mendebalera ere.

Etxaidek Ultzaman, Atetzen, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen bildu ditu *arrazore* gisakoak (1989: 117), eta *arrazore*, berriz, Berueten, Larraungo herri batzuetan, Areson eta Sakanako herri batzuetan (1989: 79).

### 2.3.11. *-ka(n) modu-atzizkia*

-kan atzizkia bildu dugu Imotz, Basaburu Nagusia eta Larraun ibarretan (baina baita, urriago bada ere, -ka ere): *ostikokan* ‘ostikoka(n)’ (Gol., Etxal.), *botakan* ‘botaka(n)’ (Its.), *presakan* (Beru., Arru., Alb., Erra.), *elkarre jokan* ‘elkarri joka(n)’ (Od.), *oñazturekan* ‘oinazturaka(n)’ (Bar.)...

Araitz-Betelun, aldiz, -ka (> -ke) jaso dugu kasu guztietan: *muturke* ‘muturka’ (Bet.), *irrintzike* ‘irrintzika’ (Gai.), *eporditti ziike* ‘ipurditik zirikak’ (In.).

-kan atzizkia Nafarroako erdiguneko ezaugarritzat jo du Caminok (2003: 86 eta 2006: 61). Gure mugetatik kanpo, -ka dago Leitzan (Olano 1998: 169-170), eta atzizki horixe dago Araitz-Betelu ondoko hizkera gipuztetan ere (K. E.)<sup>18</sup>.

### 2.3.12. *-on bat ‘-ren bat’ egitura*

-on bat bihurtu da -ren bat egitura Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen. Ez du ingurune fonologiko jakinik eskatzen, edozein bokal edo kontsonanteren ondoren ager baitaiteke: *iunon batin* ‘egunen batean’ (Gol.), *tratantion bat* ‘tratanteren bat’ (Its.), *gizonon batek* ‘gizonen batek’ (Bar.). Araitz-Betelun, adibideren bat entzun dugu, baina ohikoagoak dira honelakoak: *ordu paren bat* ‘ordu pareren bat’ (At.), *eulin bat* ‘euliren bat’ (Bet.).

-on bat egiturak Nafarroa Garaiko erdigunekoak dirudi: gure eremuan bada, eta, handik ekialdera, baita Ultzaman (Ibarra 1995: 325-326) eta Erroibar-Esteribarren (Ibarra 2000: 46) ere, baina ez dago Aezkoan. Basaburu Nagusitik iparraldera, ez da erabat arrotza Basaburu Txikian, baina gutxi

<sup>18</sup> Gainera, *eztulka* eta *isilka misilka* adibideak dakartzza *Elk Orexa* eta Bedaio herrietarako (1984: 205-207).



entzuten da (B. L.), eta ez da ageri mendebaleragoko hizkera giputzetan. Nolanahi ere, Segurako *bateonbat* eta Zegamako *bationbat* adibideen berri eman du Hurtadok (2001: 91).

### 2.3.13. *-tto atzizki txikigarria*

Imotzen eta Basaburu Nagusian, *-tto* txikigarria oso ohikoa da: *ttikittoa* ‘ttikittoa’ (Mus.), *bero-berottoa* ‘bero-berottoa’ (Urr.), *zulotto at* ‘zulotto bat’ (Gar.). Larraunen, aleren bat bildu dugu, baina gutxi; eta, Araitz-Betelun, *-tto* ez, baizik eta *-txo* erabiltzen da<sup>19</sup>: *kilo erditxo at* ‘kilo erditxo bat’ (Bet.), *txarteltxo ana* ‘txarteltxo bana’ (Azk.).

*-tto* ohikoa da gure eremutik ekialdera: Atetzen, Ultzaman eta Anuen (Ibarra 1995: 315-316, 414), Esteribarren eta Erroibarren (Ibarra 2000: 146), Artzibarren (Arana 2004: 74) edota Aezkoan (Camino 1997: 429). Ohikoa da Baztan-Malerreka aldean ere (Apalauza eta Lakar 2001-2003, Lakar eta Telletxea 2003-2004). Imoztik hegoaldera, Sakanako erdialdean bada (Erdozia 2001: 240), eta Txulapainen ere bazen (Arana 2006: 98). *EI*ko datuetan, Ipar Euskal Herriko hizkera batzuetan ere bada *-tto* (1984: 139-140). Gure mugen iparraldean, *-txo* dugu Leitzaan (Olano 1998: 175), eta biak daude Basaburu Txikian (B. L.).

### 2.3.14. “nor” eta “zein” galdetzaileak

Imotzen eta Basaburu Nagusian, “nor” galdetzailea eta haren deklinatuak bildu ditugu. Trantsizioa Basaburu Nagusiko iparraldean eta Larraungo hego-ekialdean hasten da: han, bietatik jaso dugu –bai “nor” bai “zein”–. Mendebalera egin ahala, “zein” gero eta gehiago entzun daiteke Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun; mendebaleragoko hizkera giputzekin bat egiten dute horiek.

Zuazok euskara giputzaren ezaugarritzat hartu du “zein” galdetzailea nagusitzea (1998: 218); haren arabera, Gipuzkoa osoan, Bizkaiko ipar-ekialdean eta Nafarroa Garaiko hizkera batzuetan erabiltzen da. Hala, “zein” dugu Sakanako erdialdean (Erdozia 2001: 185-186), Aranon (Zubiri eta Perurena 1998: 60) eta Bortzirietako Arantzan, Igantzin eta Lesakan (Zelaieta 2004: 241), eta biak daude Areson (Olano 1998: 13). Hain zuzen, Euskal Herriko erdiguneko mintzoetaranzko isuria duten hizkeretan nagusitu da “zein” galdetzailea.

### 2.3.15. *Partizipioa eratzeko morfemak*

Partizipioa eratzeko, hiru morfema baliatzen dira gure eremuan: *-ta*, *-rik* eta *-a(k)*. Zaila da isoglosa tinkorik ezartzea, baina, Imotzen eta Basaburu Nagusian, maizago erabiltzen da *-rik* (adibidea: *erbik illik eoten tzeen joateako* ‘erbiak hilik egoten ziren joaterako’, Lat.), eta, mendebalera egin ahala, Larraunen eta Araitz-Betelun, ohikoagoa da *-ta* (adibidea: *oatzean ilda agertze men tzen* ‘ohatzean hilda agertzen omen zen’, In.). Bestalde, eremu osoan berdintsu erabiltzen da *-a(k)*: *tabernati beotue joaten baita jendea* ‘tabernatik

<sup>19</sup> Ez dago garbi morfema beraren aldaerak ote diren *-tto* eta *-txo* (eta *-ño*) atzizkiak (Mitzelena 1977: 186-187).

berotua joaten baita jendea' (In.), *alaba re dau oso ongi kolokatuu* 'alaba ere dago oso ongi kolokatua' (Gol.).

-*ta* morfemaz eraturako egiturak Bizkaikotzat eta Gipuzkoakotzat hartu izan dira (Zuazo 1998: 220-221 eta 2006: 89), baina beste euskal hizkera askotan ere ageri dira.

### 2.3.16. *Aditzondo errepikatuak*

Euskaraz, aditzondoak errepikatu egiten dira horiek indartu nahi direnean. Euskal Herriko mendebaleko eta erdiguneko hizkeretan, mugagabeen edo partitiboan deklinatu ohi dira halako errepikapenak; baina, gure eremuko zenbait hizkeretan, badira absolutiboan deklinatutako zenbait adibide, nahiz mugagabeen eta partitiboan ere agertzen diren. Hona zenbait adibide: *dena arro-arroa jartze zen koltxona* 'dena harro-harroa jartzen zen koltxoia' (Gol.), *juxto-juxtoa bizeik atea zeen* 'justu-justua bizirik atera ziren' (Gol.), *beti beltz-beltza jauntzita* 'beti beltz-beltza jantzita' (Etxal.), *txaal-txaala jarri* 'zabal-zabala jarri' (Bar.).

Halakoak bakanka entzun ditugu Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraunen. Araitz-Betelun, mugagabeen edo partitiboan deklinaturik bildu dugu beti: *zabal-zabalik iuzkie artzen* 'zabal-zabalik eguzkia hartzen' (Bet.), *jartze zuen txuxen-txuxen* 'jartzen zuten zuzen-zuzen' (Gai.).

Ipar Euskal Herriko mintzoen eta euskara nafarraren ezaugarritzat hartu izan da halako errepikapenetan mugatzailea erabiltzea (Zuazo 2003: 182). Gure eremuan, mugagabeen edo partitiboan erabiltzea da ohikoena, baina, ikusi dugunez, badira mugatzailearen arrastoak ere, Imotzen eta Basaburu Nagusian batez ere.

### 2.3.17. *-gi, -ki modu-atzizkiak*

*ongi* eta *obeki* (& *ooki*) aditzondoak erabiltzen dira gure eremuko lau ibarretan. Alabaina, batez ere Araitz-Betelun, *ondo* eta *obeto* gero eta gehiago entzun daitezke, gazteen ahotan batik bat, baina baita zenbait heldu edo adinekoren ahotan ere. Izan ere, Araitz-Beteluren eta Tolosaldearen artean dago ezaugarri horren muga: Amezketan, Bedaion, Orexan, Lizartzan eta orobat Tolosalde (eta Gipuzkoa) osoan, *ondo* eta *obeto* erabiltzen dira (Hurtado 2001: 92).

## 2.4. Aditzaren morfologia

### 2.4.1. *Lehen pertsona singularreko NORI morfema*

Imozko eskuin muturrean dagoen Muskitzen, *-da* (> *-de, -re*) morfema erabiltzen da: *zaide* 'zait', *zaizkide* 'zaizkit', *dire* 'dit', *direzu* 'didazu', *direte* 'date', *zitzairen* 'zitzaidan', *ziren* 'zidan', *zireten* 'zidaten'.

*zaire* eta *zaide* gisakoak ezagunak dira Muskiztik ekialderako hizkeretan (Atetz, Ultzama, Anue; ikus Ibarra 1995: 422-427), baina apika hedatuxea-goak izango ziren garai batean Imotzen eta Basaburu Nagusian: Irizarrek, esate baterako, *zaizkide* bildu du Erason, Oskotzen eta Muskitzen (1992a: 249), *zitzaiden* Itsason (1992a: 305) edota *zitzairen* Orokietan (1992a: 305), eta *Elk zaide* Gartzaronen (1984: 249-250). Gaur egun, baina, Muskitzen dute muga adizki horiek.

Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarritzat jo du Caminok *-da* morfema (2003: 88-89). Haren datuen arabera, ezaugarri horretan batera doaz honako eskualde hauek: Gesalatz, Goñerria, Olloibar, Oltza zendea, Itzarbeibar, Eguesibar, Elortzibar, Gulibar, Txulapain, Odieta, Ezkabarte, Ultzama, Atetz, Anue, Esteribar, Erroibar, Artzibar eta Aezkoa. Arakil ibarrean, *-ki(d)e* eta *-de* morfemak ageri dira, eta Irañetan hasten da *-t* morfemaranzko trantsizioa. Basaburu Nagusiko iparraldeko muga, *-re* eta *-t* nahaska ageri dira Basaburu Txikiko Labaienen eta Saldiasen, eta *-t* da nagusi Eratsunen eta Ezkurran (Gaminde 1985a: 301-324).

Imozko gainerako herrietan, Basaburu Nagusian eta Larraungo Oderitzen, *-e* dugu: *zaie* 'zait', *zaizkie* & *zazkee* 'zaizkit', *dee* 'dit', *ttee* 'dizkit', *zitzaien* 'zitzaidan', *zeen* 'zidan'. Larraungo gainerako herrietan, lehian daude *-e* eta *-t* morfemak, baina *-t* gailentzen ari da: orainaldian, *zaie* zein *zait* (& *zaet*) 'zait' bildu dugu hego-ekialdeko herrietan, baina *dit* (& *det*) 'dit' soilik (eta ez *\*\*dee*), eta, lehenaldian, Larraun osoan erabiltzen da *zitzeen* 'zitzaidan' (Errazkinen, *zitzaten* eta *zitzetan* ere bildu dugu). Nolanahi ere, Gamindek *zizaten* eta *zazkiten* bildu ditu Gorritin (1985a: 122), eta Irizarrek *zitzaten* dakar Gorritirako eta *zateen* Errazkinerako (1992b: 221). Araitz-Betelun, *-t* morfema da nagusi: *za(i)t* 'zait', *zizaten* 'zitzaidan'.

*-t* morfema erabiltzen da, halaber, Larraungo eta Araitz-Beteluko iparraldean eta mendebalean: Leitza eta Areson (Olano 1998: 178-215), Sakanan (Camino 2003: 88-89), eta orobat Gipuzkoan.

#### 2.4.2. Bigarren pertsona singularreko *y-* morfema

Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean, *y-* dago: *yaiz* 'haiž', *yau* 'hago', *yun* 'huen', *yittun* 'hituen'... Larraungo ipar-mendebaleko herrietan eta Araitz-Betelun, aldiz, Ø- da morfema: *aiz* 'haiž', *uen* 'huen', *ittuen* 'hituen', *ao* 'hago'... Gamindek (1985a: 91-132) eta Irizarrek (1992b: 295, 297) egoera nahasi samarra aurkitu dute Larraungo hego-ekialdean, baina, guk bildu dugunaren arabera, *y-* da han nagusi.

Nafarroa Garaiko ezaugarria da *y-*, Gipuzkoako ipar-ekialdean ere badena (Zuazo 1998: 216 eta 2003: 112).

#### 2.4.3. Bigarren pertsona pluraleko NOR morfema

*-te* morfema dugu ia eremu osoan: *za(a)te* 'zarete', *ziñeten* 'zineten'. Larraungo hego-ekialdeko herri batzuk dira salbuespena: orainaldian, *zae* & *zai* & *zatti* 'zarete' bildu dugu Oderitzen, *zaati* Iribasen eta Baraibarren, eta *za(a)te* gainerako herrietan. Lehenaldian, *ziñiin* 'zineten' dugu Larraungo hego-ekialde osoan, eta *ziñeten*, berriz, Larraungo ipar-mendebalean (Albiasu barne).

Zuazoren arabera, Euskal Herriko erdiguneko eremu zabaleko ezaugarria da *-te*; isoglosatik kanpo daude mendebala (Deba barrena izan ezik), Sakana, Zuberoa, Erronkari eta Zaraitzu (1998: 198 eta 2003: 169-170).

#### 2.4.4. Bigarren pertsona pluraleko NORK eta NORI morfemak

Batetik, *-zie* morfema erabiltzen da Muskitzen: *duzie* 'duzue', *ttuzie* 'dituzue', *zaizie* 'zaizue', *zaizkizie* 'zaizkizue', *dizie* 'dizue', *ttizie* 'dizkizue'. Hain zuzen, Muskiztik hegoaldera eta ekialdera (Aezkoaraino) ageri da morfema hori (Camino 2003: 76), eta are Ipar Euskal Herriko zenbait hizkerataraino ere.

Bestetik, *-zte* dago Imozko gainerako herrietan eta Basaburu Nagusian: *duzte* ‘duzue’, *ttuzte* ‘dituzue’, *zaizte* ‘zaizue’, *zaizkizte* ‘zaizkizue’, *dizte* ‘dizue’, *diztet* ‘dizuet’, *ttizte* ‘dizkizue’. *-zte* Goizuetan ere bada, baina ez dago ez Leitzan ez Basaburu Txikian ere (B. L.), eta bada, halaber, Gulibarren eta ekialdeko Arakilen (Camino 2003: 76 eta 2005: 272); Gipuzkoako ipar-ekialdean, *-zute* dugu (Zuazo 1998: 199).

Berueten, aldiz, *-zu* bildu dugu: *duzu* ‘duzue’, *zaizu* ‘zaizue’, *zaizkizu* ‘zaizkizue’. Morfema hori bera dakar Gamindek Basaburu Txikiko Ezkurra, Labaien eta Saldias herrietarako (1985a: 301-324); gogoan izan hartu-eman handia dagoela batez ere Ezkurraren eta Berueteren artean.

Larraungo hego-ekialdean, *-zui* eta *-zii* dugu: *dozui* & *dozii* ‘duzue’, *diozui* ‘dizue’, *zaizui* & *zaizii* ‘zaizue’, *zazkizui* ‘zaizkizue’... Albiasu herrian hasten da aldaketa; han, *-zue* erabiltzen da, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun bezala: *duzue*, *ttuzue*, *zaizue*, *zazkizue*, *dizue*.

#### 2.4.5. Hirugarren pertsona pluraleko NORK morfema

Imotzen eta Basaburu Nagusian, *-te* da morfema: *dute* ‘dute’, *zuten* ‘zuten’, *ttute* ‘dituzte’, *zittuten* ‘zituzten’, *deete* ‘didate’. Berueten, *-te* morfemarekin batera, *-u* ere jaso dugu: *du* ‘dute’, *ttu* ‘dituzte’. Halakoak ezagunak dira Basaburu Txikiko Ezkurran ere (B. L.).

*-te* morfema Imozko eta Basaburu Nagusiko hizkeren ingurumarian ageri da, batez ere ekialdera eta hegoaldera. Zuazoren arabera, Euskal Herriko erdiguneko bereizgarria da (1998: 199), eta isoglosatik kanpo daude mendebala (Deba barrena izan ezik), Zuberoa, Nafarroa Behereko hizkera batzuk, Erronkari, Zaraitzu, Gipuzkoa gehiena eta Nafarroa Garaiko Sakana, Araitz, Larraun eta Basaburu Txiki gehiena (geroago zehaztuko dugu azken hizkera horien aukera zein den). Bereziak dira pluraleko *ttute* eta *zittuten* aldaerak; Caminoren arabera, Nafarroa Garaiko erdigunean ageri dira (2003: 87-88).

Larraungo hego-ekialdean, *-e* morfemaren *-i* aldaera erabiltzen da: *dui* & *dii* ‘dute’, *zuin* & *ziin* ‘zuten’, *ttui* & *ttii* ‘dituzte’, *zittuin* & *zittiin* ‘zituzten’, *dauzkii* ‘dauzkate’, *dioi* ‘diote’. Hori bera baina palatalizatu gabe (alegia, *-e*) dugu Albiasun eta Larraungo ipar-mendebalean: *due* ‘dute’, *zuen* ‘zuten’, *ttue* ‘dituzte’, *zittuen* ‘zituzten’. *-e* dago, halaber, Araitz-Betelun. *-e* morfema ondoko Gipuzkoako Tolosalde eta Goierri gehiengan bada (Hurtado 2001: 99), eta baita Leitzan eta Areson ere (Olano 1998: 204).

Bestalde, aipatzekoak dira “haiek niri hura” eta “haiek niri haiek” adizkiak: *dei* ‘didate’, *ttei* ‘dizkidate’, *zein* ‘zidaten’ bildu dugu Larraungo hego-ekialdean (Albiasu barne), eta *deie*, *dazkeie* eta *zeien* Errazkin ez beste Larraungo ipar-mendebaleko herrietan. Errazkinen eta Araitz-Betelun, *die*, *dazkie* & *dazkee* eta *zien* erabiltzen dira halakoetan.

#### 2.4.6. Hirugarren pertsona pluraleko NORI morfema

*-te* dugu Imotzen eta Basaburu Nagusian: *zaiote* ‘zaie’, *zitzaioten* ‘zitzaien’, *diote* ‘die’, *dietet* ‘diet’, *ziñioten* ‘zenien’.

Larraungo hego-ekialdean, *-i* dago: *zayi* ‘zaie’, *zitziin* ‘zitzaien’, *dii* ‘diote’. Albiasun, *-e* bildu dugu, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun bezala: *zaie* ‘zaie’, *zitzaien* ‘zitzaien’, *die* ‘diote’, *zien* ‘zieten’.

Araitz-Betelu ondoko hizkera giputzetan, *-e* dago; baina, Tolosan eta Ibarrran, *-te* ere bildu du Hurtadok (2001: 100). Larraundik iparraldera, *-e* dago gaur egun Areson, baina *-a* elementuaz osatutako forma pleonastikoak dau-de Leitzan: *zaioa*, *dioa*... (Olano 1998: 179-180, 202, cf. Altuna 1995)<sup>20</sup>.

#### 2.4.7. *Nor-nori-nork saileko pluralgilea*

Banaketa garbia da gure eremuan: *-it-* pluralgilea erabiltzen da Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean (Albiasu barne), eta *-zk-*, aldiz, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun. Pluralgile horri garrantzi handia eman zaio euskal dialektologian (Irizar 1981b: 256):

Quizá la característica más señalada del conjunto del dialecto alto-narvarro septentrional sea la pluralización de objeto directo, que da lugar a formas verbales del tipo *ttio* (...), que están presentes, más o menos, en todas sus variedades (...).

Areago, Bonapartek ezaugarri horri erreparatu zion Larraungo hego-ekialdeko herriak Uharte Arakilgo aldaeran sartzeko (ikus 1.5.), baina, Irizarren ustez, ezaugarri hori ez da aski bi hizkerok batera sailkatzeko. Izan ere, gainerako ezaugarrietan, Larraungo hego-ekialdeak antzekotasun handiagoa du Larraungo ipar-mendebalarekin, Uharte Arakilekin baino (Irizar 1992a: 4-5). Guk zuzen deritzogu Irizarren arrazoibideari. Hala ere, Irizarrek ez du ukatu ezaugarri horren garrantzia, eta bi eremu ikusi ditu Larraunen barnean (Irizar 1992b: 121):

... se aprecia que el tipo de pluralización empleado en la subvariedad de Larraun sudoriental (formas con *tt-*) es distinto del utilizado en las otras cuatro subvariedades (formas con *-zk-*). Este hecho, según hemos indicado, ha sido decisivo en la consideración de dos subvariedades en el valle de Larraun.

Hona bietariko zenbait adibide: *ttio* vs. *dazkio* ‘dizkio’, *ttiot* vs. *dazkiot* ‘dizkiot’, *ttiu* vs. *dazkiu* ‘dizkigu’, *nittion* vs. *nazkion* ‘nizkion’.

Zuazok euskara nafarraren ezaugarritzat hartu du nor-nori-nork saileko *-it-* pluralgilea, baina berak euskara nafarra deitzen duen eremutik kanpo ere bada (1998: 216; 2003: 112). Caminok zehaztu duenez, Nafarroa Garaiko erdiguneko ezaugarria da, Bidasoaldeko Irun eta Hondarribiraino iristen dena (2003: 88). Isoglosatik kanpo daude Baztan, Aezkoa, Zaraitzu eta Artzibar. Gure eremuan, ikusi dugunez, Larraungo hego-ekialdearen eta ipar-mendebalaren artean dago ezaugarriaren muga; hain zuzen, *-zk-* dugu Larraundik iparraldera diren Areson eta Leitzan ere (Olano 1998: 182-185, 214-215). *-zk-* pluralgilea eremu zabalekoa da, baina eremu murriztekoa da *-a-* erro horri (*dazkio*); Leitzan eta Areson ere bada, baina *-i-* ageri da Tolosaldean eta Goierrin (Hurtado 2001: 98).

<sup>20</sup> Azkaraten ere bildu izan dira halako adizki pleonastikoak (Altuna 1995: 238-239), baina gaur egun behinik behin *-e* erabiltzen da. Bestalde, Araitz-Betelu ondoko hizkera giputzetan ere badira *-a-z* osatutako forma pleonastikoak (Amezketak, Gaztelu...).

#### 2.4.8. “Izan” aditzaren *-a-* erroa

*-a-* erroa dugu eremu osoan: *gaa* ‘gara’, *zaa* ‘zara’, *za(a)te* ‘zarete’. Nolanahi ere, Araitz-Betelun, gazte jendeak gehienbat, *-e-* erroa duten adizkiak oso maiz erabiltzen ditu: *gea*, *zea*, *zeate*. Hori, zalantzarik gabe, ondoko Tolosaldearen eraginez gertatu da.

*-a-* erroa Nafarroa Garai gehiengan erabiltzen da, baina *-e-* giputza dago Areson (Olano 1998: 179) edota Aranon (Zubiri eta Perurena 1998: 158).

#### 2.4.9. “Edun” aditzaren *-u-* (> *-o-*) erroa

Gure eremu osoan, *-u-* da “edun” aditzaren erroa (zenbaitetan, > *-o-*; ikus 2.1.4.1.). Alabaina, Araitz-Betelun batez ere, *-e-* erroa duten adizkiak entzun daitezke gero eta gehiago, gazteen artean batik bat: *det* ‘du’<sup>2</sup>, *deu* ‘dugu’<sup>2</sup>, *dezu* ‘dugu’... Ondoko hizkera giputzen eraginez erabiltzen dira horiek, ezbairik gabe.

#### 2.4.10. NORI saileko *-ki-* erroa

Nor-nori saileko lehenaldiko adizkietan, *-ki-* erroa ageri da Muskitzen: *zaikiden* ‘zitzaidan’, *zaikion* ‘zitzaion’... Erro hori Nafarroa Garaiko zenbait hizkeratan eta Bizkaiko beste batzuetan ageri da (Irizar 1981b: 258 eta Zua-zo 1998: 223). Caminok Nafarroa Garaiko erdiguneko hizkeren ezaugarritzat hartu du (2003: 70): badira adibideak Gesalatz, Itzarbeibar, Oltza, Goñerria, Eguesibar, Esteribar, Erroibar, Artzibar, Sakana, Imozko Eraso eta Muskitz, Atetz, Txulapain, Odieta, Ultzama, Ezkabarte eta Anue eskualdeetako hizkeretan. Nolanahi ere, Atetzen eta Ultzaman, *-tza-* erroarekin txandaka erabiltzen da (Ibarra 1995: 425-426), eta, gaur egun, erabat desagertu da Erasoko mintzotik.

Gure eremuko gainerako herrietan, *-tza-* erroa ageri da.

#### 2.4.11. *ziñ-*, *giñ-* / *zend-*, *gend-* lehenaldiko zenbait adizkitan

Nor-nork saileko lehenaldiko adizkietan, *ziñ-* eta *giñ-* ageri dira eremu osoan honako forma hauetan: *ziñun* & *ziñuen* (Mus.) ‘zenuen’, *ziñuten* (Im., Bas. Nag.) & *ziñuin* (Larr. hego-ekialdea) & *ziñuen* (Larr. ipar-mendebala, Ar.-Bet.) ‘zenuten’, *giñun* & *giñuen* (Mus.) ‘genuen’... Nafarroa Garaian, ohikoa da ezaugarri hori.

Alabaina, Araitz-Betelun, adizki horiek beste hauekin lehian daude: *zendun*, *zenduen* eta *gendun*. Ondoko hizkera giputzen eraginez sartu dira horiek (cf. Bähr 1972: 246-249); Gamindek eta Irizarrek ere bildu dituzte hala-koak Araitz-Betelun (1985a: 147 eta 1992b: 174).

#### 2.4.12. Geroaldiko morfema

*-n-z* bukatutako aditzetan, geroaldiko *-en* (> *-in*) morfema erabiltzen da Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean: *iñen* ‘eginen’, *emain* ‘emanen’, *izain* ‘izanen’, *joain* & *yoain* ‘joanen’, *eamain* ‘eramanen’, *jakinien* & *yakinien* ‘jakinen’... Horietaz gain, *izaan*, *emaan*, *yoaan* gisakoak ere bildu ditugu Basaburu Nagusiko iparraldean, Leitzan (Olano 1998: 14, 71) edota Basaburu Txikian bezala (Apalauza eta Lakar 2001-2003).

Trantsizioa Albiasun hasten da: han, *-en* zein *-go* morfemak jaso ditugu. Biak daude, halaber, Uitzin, Gorritin eta Azpirotzen, baina erabat nagusitzen

ari da *-go* morfema. Hain zuzen, *-go* dugu Errazkinen eta Araitz-Betelun: *in-go, emango, izango, joango...*

*-go* dugu Araitz-Betelutik mendebalera ere, eta, iparraldeko mugan, *-en* morfemari eutsi diote Leitzan, baina *-go* dago Areson (Olano 2000: 130-131). Euskal Herri osoa aintzat hartuz, oro har, *-go* dugu mendebalean eta erdigunean, eta *-en* Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian (Zuazo 2003: 184).

#### 2.4.13. *Nor-nork eta nor-nori-nork sailak nahastea*

Hego Euskal Herriko hizkera askotan bezala, Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraun gehiengan, gaur egun, *nor-nori-nork* saileko adizkiak erabiltzen dira *nor-nork* saileko aditzen lekuan: *ez deete arpatu izandu zibillek* ‘ez didate (naute) harrapatu izan(du) zibilek’ (Lat.), *soldado eaman tzeetelaik* ‘soldado eraman zidatelarik (nindutelarik)’ (Arrar.), *botatu bear deek* ‘bozkatu behar didak (nauk)’ (Ui.). Beste ikertzaile batzuek *nor-nork* sailekoak bildu izan dituzte bai Goldaratzen, bai Larraunen, bai Basaburu Nagusian (Gaminde 1985a: 325-360, 91-132; Irizar 1992a: 217-272, 275-359; Irizar 1992b: 185-331); baina, Irizarrek gure eremua aintzat hartuz garbi adierazi duenez, Araitz-Betelun (eta baita Leitzan eta Areson ere) gorde dira hobekien *nor-nork* adizkiak, Larraunen bietatik baitzagoen beraren garaian ere (1992b: 121-122).

Errazkinen eta Araitz-Betelun ongi bereizten dituzte bi sailak gaur egun oraindik ere, nahiz eta gazte jendeak gero eta gehiago nahasten dituen bi sailtako adizkiak. Adibideak: *jo itten giñuen* ‘jo egiten gintuzten’ (Erra.), *zee buutik izketan ekosi zattot* ‘zeure burutik hizketan ikusi zaitut’ (Gai.).

#### 2.4.14. *Komunztadura-eza aditzean*

Araitz-Betelun, zenbaitetan, objektuarekiko komunztadura galdu da. *Nor-nork* saileko adizkietan, aditza eta objektu plurala ez dira komunztatzen: *komerik ibiltzen giñun* ‘komeriak ibiltzen genuen (genituen)’ (Uzt.), *been izketa klaseak ekarriko zuen* ‘beren hizketa klaseak ekarriko zuten (zituzten)’ (Bet.). Bestalde, *nor-nori* sailekoetan, aditzaren eta datiboaren komunztadura-eza dugu: *arrek irraazi zun gezurretan nee* ‘hark irabazi zuen (zidan) gezurretan niri’ (Gai.), *eman bear tziñun bazkarie denai* ‘eman behar zenuen (zenien) bazkaria denei’ (Bet.). Komunztadura-falta ez da erabatekoa, baina askotan gertatzen da Araitz-Betelun.

Hurtadok objektu pluralarekiko eta datiboarekiko komunztadura-ezaren adibideak bildu ditu Tolosaldean eta Goierrin (2001: 103-104), eta, areago, Deba ibarreko hegoaldean (Zuazo 2006: 86) edota Oiartzunen (Fraile eta Fraile 1996: 107) ere badira. Irizarrek Bergara aldean, Gatzaga aldean eta Zegamako aldaeran bildu ditu komunztatu gabeko adibideak (1981b: 369-372). Nolanahi ere, beste hizkera batzuetan ere gal daiteke komunztadura; Ipar Euskal Herriko mintzo gehienetan eta Nafarroako ekialdeko batzuetan, esate baterako, hautazkoa da datiboarekiko komunztadura (cf. Camino 1997: 465-466 eta Epelde 2004: 292-293).

#### 2.4.15. *Zenbait adizki pleonastiko*

Araitz-Betelun, zenbait adizki pleonastiko sortu da iraganean: *su ematen ziozun* ‘su ematen zenion’ (At.), *guk ez giñakiun erdaaz zipitzik e* ‘guk ez ge-

nekien erdaraz zipitzik ere' (Gai.), *oik emango zazkiozun apezai* 'horiek eman-go zenizkion apezari' (Bet.), *ezpazeaokezon* 'ez bazeneukan' (Azk.).

Antzeko adizkiak daude Amezketan (K. E.): *ziozun* 'zenion', *bagiñikiun* 'bagenekien', *zeaukezun* 'zeneukan', *ziezun* 'zenien'. Gipuzkoako hizkeren ezaugarri dira halako adizkiak (Irizar 1992b: 122, cf. Bähr 1972: 266-269).

#### 2.4.16. "Joan" aditzaren forma trinkoak

Funtsean, bi adizki mota erabiltzen dira gure eremuan: *n(o)ai*e gisakoak eta *noa* (& *nii*, *nie*) gisakoak. *n(o)ai*e gisakoak Goldaratz ez beste Imozko herrietan eta Basaburu Nagusi gehiengan (salbu iparraldeko herrietan) entzun ditugu: *badaie* 'badoa' (Etxal.), *oianea noaie* 'oihanera noa' (Gar.). Nafarroa Garaian, hedadura zabala dute halakoek: badira Nafarroako ipar-ekialdean, Ultzama aldean eta handik ekialdera Aezkoaraino, Basaburu Txikian edota Uhartan eta Irañetan, eta Txulapainen ere baziren (Gaminde 1985a).

Aldiz, *nii* gisakoak ditugu Goldaratz, Basaburu Nagusiko iparraldean eta Larraunen: *beti gora dii* 'beti gora doa' (Gol.), *Lekunberree nii* 'Lekunberriera noa' (Ald.), *amazazpi urte betetzea dii zarrena* 'hamazazpi urte betetzera doa zaharrena' (Ig.). Larraunen eta Araitz-Betelun, *noa* eta *doa* nagusitzen ari dira, baina adinekoek *nie* eta *die* erabiltzen dituzte nagusiki.

Pluraleko adizkiei dagokienez, forma bertsuak erabiltzen dira Imotz eta Basaburu Nagusi osoan: *zoazi* 'zoaz', *goazi* 'goaz', *zoazte* 'zoazte', *d(i)izte* & *di(i)ze* 'doaz'. Larraunen eta Araitz-Betelun, aldiz, *zoaz*, *goaz*, *zoazte* eta *di(e)zte* daude.

Batez ere Araitz-Betelun, ondoko hizkera giputzetan ohikoak diren *nijoa*, *dijoa*, *zijoan* gisakoak zabaltzen ari dira, gazteen artean batik bat, baina baita adineko zenbait hiztunen artean ere. Adibide hauek adinekoengandik jasoak dira: *goraka-goraka aitzondoa zijoala* 'goraka-goraka haitzondora zihoala' (Gai.), *esan nizuen ordun ee nola bazijoan goizeko ordu bik aldea-o, etxea nola zijoan* 'esan nizuen orduan ere nola bazihoan goizeko ordu biak aldera-edo, etxera nola zihoan' (Arri.), *illargie beira dijoanean* 'ilargia behera doanean' (Bet.), *ba emen tzijoan erromeri ortaa* 'ba omen zihoan erromeria horretara' (Bet.).

#### 2.4.17. "Egon" aditzaren forma trinkoak

*dai* 'daude', *zai* 'zaude', *gai* 'gaude' gisako forma murriztuak daude Goldaratz, Basaburu Nagusiko iparraldean eta Errazkin ez beste Larraungo herrietan. Araitz-Betelun, *dau(d)e*, *zau(d)e* eta *gau(d)e* dira nagusi, baina hiztun adinekoenak *dae*, *zae* eta *gae* ere erabiltzen dituzte. Imotz eta Basaburu Nagusi gehiengan, *daude*, *zaude*, *gaude* ditugu.

Gure hizkerez gaindi, *gai* gisakoak Areson ere badira, baina ez daude ez Leitzan (Olano 1998: 191) ez Basaburu Txikian (B.L.).

Bestalde, hirugarren pertsona singularreko adizkia *zeon* (& *zion*) 'zegoen' da Imotzen eta Basaburu Nagusi gehiengan, baina *zegoan* bildu dugu Beruetan, Larraunen eta Araitz-Betelun. Leitzan ere bada hori, baina ez Areson (Olano 1998: 191, 216).

#### 2.4.18. "Eduki" aditzaren forma trinkoak

Ñabardura morfologiko bati erreparatuko diogu: *dauzkit* 'dauzkat', *dauzki* 'dauzka', *dauzkizu* & *dauzkizo* 'dauzkazu' gisakoak erabiltzen dira Imo-



tzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean, eta *dauzket*, *dauzke*, *dauzkezu* & *dauzkezo* Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun.

Ez dugu ezagutzen *-i-* duten adizkien hedadura zehatza zein den, baina Gamindek iparraldeko goi-nafarreraren hizkera batzuetan behintzat bildu ditu (1985a): Arakilen (pluralean soilik), Goizuetan, Aranon, Sunbillan, Legasan, Malerrekako hizkera batzuetan, Basaburu Txikian, Ultzaman (pluralean), Atetzen (pluralean), Anuen (pluralean), Odietan (pluralean) eta Txulapainen (pluralean). Horretaz gain, Etxaidek Nafarroan egin zuen inkesta ezagunaren 203. galderari erreparatuz gero, ohartuko gara halakoak Zaraitzuraino hedatzen direla (1989: 248-249); Ibarrek Esteribarko Usetxin ere bildu ditu halakoak (2000: 182). Ez dago halakorik Sakanan (Erdozia 2001: 280-282). Nafarroatik haratago, Gipuzkoako iparraldean den Oiartzunen ere ezagunak dira *-i-*dunak (Fraile eta Fraile 1996: 32).

*e-*dunei dagokienez, gure eremutik mendebalera dauden hizkera giputzetan ere badira (Hurtado 2001: 55-56), eta baita Leitzan eta Areson ere (Olano 1998: 192, 217-218).

#### 2.4.19. “Heldu + izan” egitura

Gure eremu osoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian ohi den bezala, “heldu + izan” egitura erabiltzen da “etorri” aditzaren forma trinkoen orde: *eldu da* ‘heldu da, (ba)dator’. Ezaugarri horren muga Gipuzkoako mugan dago: Araitz-Beteluren ondo-ondoan dagoen Amezketan, *nator* gisakoak erabiltzen dira (K. E.). Alabaina, Gipuzkoako hizkeren eraginez, *nator* gisakoak zabaltzen ari dira eremu osoan, Araitz-Betelun eta Larraungo ipar-mendebalean batez ere. Intzak, hala ere, *nator* sailekoak bildu zituen Larraunen, baina ez dugu uste berak zioen bezain zabalduta daudenik (1957: 103-104).

#### 2.4.20. Aditzoinaren erabilera

Euskal Herriko mendebaleko eta erdialdeko hizkeren ezaugarria da aditzoinik ez erabiltzea (Zuazo 1998: 220, 2003: 192). Gure eremuari dagokionez, partizipioa erabiltzeko joera dago, baina aditzoina ere erabiltzen da zenbait kasutan.

Batez ere agintera-perpauzetan erabiltzen da, eremu osoan: *espea zazo* ‘espera ezazu’ (Gol.), *oe paa zazo* ‘hori para ezazu’ (Beru.), *etor zattez audo* ‘etor zaitez agudo’ (Iri.), *sar ai emen* ‘sar hadi hemen’ (Gai.). Ahalera- eta subjunktibo-perpauzetan, partizipioa da nagusi, baina aditzoina ere ageri da tarteka: *maternidadin ama geittu itteke neskatoakin?* ‘maternidadean (< gazt. maternidad) ama geldi daiteke neskatoarekin?’ (Bar.), baina *gue lanak espea dezake* ‘gure lanak espera dezake’ (Iri.); *eosi deiztela* ‘egos daitezela’ (Bet.), baina *paas daila* ‘pasa dadila’ (Etxal.).

### 2.5. Perpauaren morfologia

#### 2.5.1. Kausa-perpauetako morfema

Batetik, *-lakos* morfema dugu Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean: *etzutelakos eunero ibiltzeko espartziñik* ‘ez zutelako(z) egunero ibiltzeko espartinik’ (Osk.), *oso baldarra zelakos* ‘oso baldarra zelako(z)’ (Gar.), *paatzen etzulakos* ‘pagatzen ez zuelako(z)’ (Arru.).

Instrumentalaren markarik gabekoak ditugu, aldiz, Larraungo ipar-mendebalean eta Araitz-Betelun: *beandu delako* ‘berandu delako’ (Ui.), *kolore ohea ematen tziolako gaztae* ‘kolore hobea ematen ziolako gaztari’ (Gai.).

*-lakos* (& *-lakotz*) gisakoak Ipar Euskal Herriko hizkeren eta euskara nafarraren ezaugarri dira (Zuazo 2003: 186).

### 2.5.2. Denbora-perpausetako morfema

Bi morfema erabiltzen dira gure eremuan: *-larik* eta *-nean*<sup>21</sup>. *-larik* Golderatz ez beste Imozko herrietan, eta Beruete eta Igoa ez beste Basaburu Nagusiko herrietan erabiltzen da: *zerbate in bearra daolaik* ‘zerbait egin beharra dagoelarik’ (Arrar.), *elur-lapatxa da elurre mei-meia botzen dulaik* ‘elur-lapatxa da elurra mehe-mehea botatzen duelarik’ (Ud.), *Ramonita ezkondu zelaik* ‘Ramonita ezkondu zelarik’ (Era.), *epaitze-ta botzea joaten tzelaik* ‘epaitza-eta botatzera joaten zelarik’ (Mus.). Nolanahi ere, gaur egun, Imotz eta Basaburu Nagusi osora ari da zabaltzen *-nean* morfema.

*-nean* erabiltzen da, hain zuzen, Golderatzen, Berueten, Igoan, Larraunen eta Araitz-Betelun: *oi ikusi zunin* ‘hori ikusi zuenean’ (Gol.), *tankea jarri giñunean* ‘tankea jarri genuenean’ (At.).

Zuazoren arabera, Ipar Euskal Herriko hizkeren eta euskara nafarraren ezaugarria da *-laik*, eta erdigunekoa eta mendebalekoa, berriz, *-nean* (2003: 185).

### 2.5.3. “Uste + -en” eta “uste + -ela” egiturak

Oro har, *-en* ageri da Imotzen eta Basaburu Nagusian (salbu Berueten), baina *-ela* morfemarekin batera betiere: *nik uste oi esan nai dun* ‘nik uste hori esan nahi duen’ (Gol.), *nik uste ballen beti-beti geina euskeras emen itz ein duun* ‘nik uste ballean (ibarrean) beti-beti gehiena euskaraz hemen hitz egin dugun’ (Etxal.).

Larraunen eta Araitz-Betelun, *-ela* jaso dugu kasu guztietan: *uste dot gezurretan ai dela* ‘uste dut gezurretan ari dela’ (Ui.), *nik uste buelta beiñ-eo ematen giñiola* ‘nik uste buelta behin-edo ematen geniola’ (Arri.). Hala ere, *-en* entzun genuen behin Oderitzen: *nik uste lenau baño ooki(o) gauden* ‘nik uste lehenago baino hobeki(ago) gauden’.

“Uste”-rekiko egituretan, oro har, *-en* baliatzen da Ipar Euskal Herrian eta euskara nafarrean, eta *-ela*, aldiz, erdiguneko eta mendebaleko hizkeretan (Zuazo 1999: 250 eta 2003: 185).

### 2.5.4. Zenbait nominalizazio

“Utzi”, “saiatu”, “eman” eta halako aditzekin batera joan ohi den aditzizena absolutiboan (*-t(z)ea*) edo inesiboan (*-t(z)en*) joan daiteke gure eremuan. Azalpena laburtzeko asmoz, “utzi” aditzari soilik erreparatuko diogu hemen. Hala, *-t(z)ea* Imotzen, Basaburu Nagusian eta Larraungo hego-ekialdean jaso dugu. Zenbaitetan, zaila da *-t(z)ea* edo *-t(z)era* ote den jakitea; izan ere, *-e + -a > -ea* egiten duten hizkeretan (kasu honetan, Imozko tarteko herriak eta Basaburu Nagusiko hegoaldea), *-t(z)ea* da ‘-t(z)ea’ nahiz ‘-t(z)era’

<sup>21</sup> *-ela* denborazkoa ere bada *-nean* erabiltzen den hizkeretan.

aditz-izenen emaitza, eta, beraz, hiztun batek *ez baitziun uzten joatea* esaten duenean, ez dakigu 'joatea' ala 'joatera' esaten ari ote den. Nolanahi ere, halako nominalizazioetan, *-t(z)ee* edo *-t(z)ii* bildu dugu Goldaratzen, Basaburu Nagusiko iparraldean eta Larraungo hego-ekialdean; hortaz, *-t(z)ea* horiek ere '-t(z)ea' direla pentsatuko dugu. Hona adibide batzuk: *etzioten utzi joatii* 'ez zioten utzi joatea' (Gol.), *ez dute uzten botatzea* 'ez dute uzten botatzea' (Urr.), *etzeeten uzten iandetan dantzatzea yoatee* 'ez zidaten uzten igandetan dantzatzea joatea' (Arrar.), *utziek buelta at ematee* 'utzidak buelta bat ematea' (Ald.).

*-t(z)en* dugu halako nominalizazioak sortzeko beste aukera. Albiasutik hasita Larraungo ipar-mendebal osoan erabiltzen da, baita Araitz-Betelun ere: *uztaazo buelta at ematen* 'utzidazu buelta bat ematen' (Gorr.), *uzten tziñun oztutzen* 'uzten zenuen hozten' (Bet.).

Aditz-izenetako *-t(z)en* Euskal Herriko erdiguneko eta mendebaleko ezaugarritzat hartu izan da (Zuazo 1998: 220).

## 2.6. Lexikoa

Lexikoan, desberdintasun nabarmenak daude gure eremuaren barnean. Joera orokor batzuk erakutsi besterik ez dugu egingo, eta beste saio baterako utziko dugu lexikoaren azterketa sakonagoa.

Desberdintasunak ekialdea-mendebala norabidean gauzatzen dira gure eremuan. Izan ere, Muskitzen kokatzen bagara, ohartuko gara badela jauzi lexikoa handik Imozko gainerako herrietara; hurrengo jauzia Goldaratzen dago, ezberdina baita hango lexikoa Imozko gainerako herriekiko; Basaburu Nagusitik Larrauna ere bada alde; eta baita Larraundik Araitz-Betelura ere. Jauzia handi samarra da Muskitzen edota Goldaratzen, baina, mendebalera joan ahala, aldaketa urriagoa da, eta jauzia ez da hain nabaria.

2.6.1. Muskitzen bai baina handik mendebalera erabiltzen ez den lexikoa ikusiko dugu lehenik. Oskotz eta Etxaleku ere Muskitzekin batera doaz batzuetan, eta baita Basaburu Nagusiko ekialdea ere. Oro har, Muskitzerako emango ditugun hitz eta aldaerak ekialderagoko hizkeretan ere badira (Atetz, Ultzama, eta, zenbaitetan, baita ipar-ekialderago ere), baina betiere kontuan izan behar dugu ale guztion hedadura ez dela bera. Muskizkoa emango dugu lehenik, eta mendebaleragokoa ondoren. Hitzak: *amatxi* (& *abueta*) / *amandre* 'amona', *armimau* / *armiarma* 'armiarma', *gatzakoi* / *gatzari* 'gatzagia', *iretze* / *iraztor* (Im., Larr.)<sup>22</sup>, *garo* (Ar.-Bet.), *kukuso* / *arkakuso* 'arkakuso', *mandar* / *mantal* 'aurreko mantala', *oroittu* / *akordatu*, *gooratu* 'oroitu', *gogoratu*, *txilko* / *txilbor* 'zilborra', *urrin* / *usai* 'usaina'. Aldaerak: *ameka* / *amika* 'hamaika', *bago* / *pago* 'pagoa', *deitxi* / *jetxi*, *yetzi*, *jetzi* 'jetzi', *erran* / *esan* 'esan', *iruzki* / *euzki* 'eguzkia', *martuxe* / *matxutxe* (Im., Bas. Nag.), *matuste* (Gol., Ald.), *masuste* (Larr., Ar.-Bet.) 'masusta', *matel* / *matail* 'masaila', *yautsi* / *jetsi* 'jaitsi'.

2.6.2. Goldaratz Imoztik bereizi eta Larrauni hurbiltzen zaio batzuetan. Oro har, Goldaratzen eta Larraunen dauden hitz eta aldaerak mendebaleragoko hizkeretan ere badira, baina forma bakoitzak bere hedadura du: batzuk oso hedatuta daude gure eremutik mendebalera, baina beste batzuen heda-

<sup>22</sup> Egiakzi, *ira* + *-tze*, *-tor* dugu hor, baina bi hiztzat hartu ditugu hemen.

dura txikiagoa da. Basaburu Nagusiari dagokionez, Goldaratzekin bat egiten du batzuetan, eta Imotzekin beste batzuetan. Goldarazko forma emango dugu lehenik, eta Imozkoa ondoren. Hitzak: *bana(b)ar* / *alubi* ‘banabarra, babarruna’, *euntze* / *soro* ‘pentzea; gazt. Prado’, *ganbara* / *sabai* ‘ganbara’, *ire in* / *ingiri in* ‘igeri egin’, *mendi* / *oian* ‘mendia; gazt. monte’, *ordueta* / *onbata* ‘ordubata’, *parre in* / *irri in* ‘barre egin’, *xongatillo* / *txurmio* ‘orkatila’, *zirriku* / *erteka* ‘zirrikitua’. Aldaerak: *azkazal* / *azazkal* ‘azkazala’, *geazi* / *geezi* ‘gerezia’, *illoba* / *illeba* ‘iloba’, *intxaur* / *eltxaur* ‘intxaurra’, *izoa* / *izeba* ‘izeba’.

2.6.3. Imozko eta Basaburu Nagusiko mugetatik Larrauna ere bada jauzi lexikoa. Oro har, mendebaleragoko joerari lotzen zaio Larraun, baina hitz eta aldaera guztien hedadura ez da bat eta bera. Bestalde, Berueteke lexikoak badiu Larraungorako isuria, harekin baitoa hitz eta aldaera askotan. Imozko eta Basaburu Nagusiko aukera emango dugu lehenik, eta Larraungoa ondoren. Hitzak: *aztatu* / *as(e)matu* ‘asmatu’, *beitti* / *ukullu* ‘ukuilua’, *bota* / *erori* ‘erori’, *ebatsi* / *ostu* ‘lapurtu’, *ertsi* / *itxi* ‘itxi’, *jainkoan paxa* / *jainkoan gerriko* ‘ortzadarra’, *joale* / *zintzarri* ‘zintzarria’, *kalma* / *kalma* & *odai* ‘hodeia’, *maingi* / *makur* ‘maingua, herrena’, *paratu* / *jarri* ‘jarri’, *pa(t)xaon* / *tximillo* ‘basakarana’, *sartan* / *danbolin* ‘danbolina’, *tripota* / *odolki* ‘odolkia’, *txirrin* / *iñaa*, *enaa* ‘enara’, *zarre* / *eskuere* ‘eskuarea’. Aldaerak: *altzur* / *aitzur* ‘aitzurra’, *bultkatu* / *bultzatu* ‘bultzatu’, *jauntzi* / *jantzi* ‘jantzi’, *koopillo* / *koapillo* ‘korapiloa’, *lintsuse* / *intsuse* ‘intsusa lorea’, *malubi* / *maduri*, *maruri* ‘marrubia’, *ogei* / *ogai* ‘hoge’, *ortots* / *ostots* ‘ostotsa, trumoa’.

2.6.4. Ale lexiko batzuen muga Larraunen baitan dago: hego-ekialdea dago alde batetik, eta ipar-mendebala bestetik. Oro har, mendebaleragoko eskualdeei (Araitz-Beteluri, Tolosaldeari) lotzen zaie ipar-mendebala, eta ekialderagokoei hego-ekialdea (Basaburu Nagusiari, Imotzi, Ultzamari). Hego-ekialdekoa ikusiko dugu lehenik, eta ipar-mendebalekoa ondoren. Hitzak: *aparte* / *urruti* ‘urruti’, *asenai* / *azkure* ‘hazkurea’, *atari* / *ate* ‘atea’, *aztal* / *opo* ‘orpoa’, *biga* / (zurezko) *sarde* ‘bi puntarekiko sarde mota’, *kider* / *kirten* ‘kiderra’, *lantxurde* / *antziar* ‘antzigarra’, *manatu* / *agindu* ‘agindu’, *mutil* / *morroi* ‘morroia’, *pitxera* / *txarro* ‘pitxera’, *piztu* & *ixiki* / *piztu* ‘piztu’. Aldaerak: *ausin* / *osin* ‘asuna’, *bakotx* / *bakoitz* ‘bakoitza’, *eke* / *kei* ‘kea’, *gae* & *gai* / *bae* & *bai* ‘gabe’, *lengusi* / *lengusu* ‘lehengusua & lehengusina’, *solemu* / *solamu* ‘solomoa’.

2.6.5. Azkenik, Larraundik Araitz-Betelura dagoen jauzi lexikoa ikusiko dugu. Ez dira oso eremu zabaleko aleak, baina, oro har, Araitz-Betelu Euskal Herriko erdiguneko lexikora lerratzen dela erakusten dute. Larraungoa ikusiko dugu lehenik, eta Araitz-Betelukoa ondoren. Hitzak: *atteutxi*, *amautxi* / *atteponteko*, *ama-ponteko* ‘aitabitxia, amabitxia’, *aitzurko* / *jorrai* ‘aitzur txikia’, *alor* / *soro* ‘ereiten den lur-eremu itxi eta partikularra’, *añar* / *txilar* ‘ainarra, txilarra’, *barne*, *barren* / *barrun* ‘barne’, *esperatu* / *itxoin* ‘itxoin’, *goraintzi* / *eskumin* ‘goraintziak’, *idin aurre* / *itzule* ‘itzul-lana’, *igande* / *jai* ‘igandea’, *irutan ogei* & *lautan ogei* / *irurogei* & *laurogei* ‘hirurogei, laurogei’, *kalpar* / *ile* ‘ilea’, *latz* / *lataz* ‘latza’, *meta* / *zuatz* ‘meta, zuhatza’. Aldaerak: *berantetsi* / *berandutu* ‘berandutu’, *berendu* / *merendu* ‘askaria’, *bi orduk* / *ordubik* ‘ordubiak’, *buuxik*, *puuxik* / *goaizik* ‘guraizeak’, *erde* / *lerde* ‘lerdea’, *huri* / *ebi* ‘euria’, *ore* & *oratu* / *orre* & *orratu* ‘orea, oratu’, *prest* / *presto* ‘prest’, *tanta* / *tanto* ‘tanta’, *txopin* / *txotin* ‘zotina’, *uli* / *elbi* ‘eulia’.

Atal honetan ikusi ditugun hitz eta aldaeren hedadura ez da bat eta bera: batzuk eremu zabalekoak dira, baina oso eremu murriztekoak ere badira. Sakonago aztertu beharko genuke hori, baina jauzi lexikoa ezker-eskuin gauzaten dela eta, zenbat eta mendebalerago egin, jauzia orduan eta txikiagoa dela erakutsi nahi izan dugu hemen.

### 3. HIZKUNTZA-ETEN NAGUSIAK GURE EREMUAN

3.1. Muskiztik mendebalera dago eten nagusia. Muskizko euskarak antzekotasun handia du Atetz-Ultzama-Anue eskualdekoarekin, eta, halaber, handik ekialderagoekin. Ondorio bera erdietsi du Ibarrak ere (1995: 682). Zenbaitetan, Muskitzekin batera doaz Oskotz eta Etxaleku, eta baita Erbiti, Gartzaron eta Orokietan ere. Muskiz honako ezaugarri nagusi hauetan urruntzen da eremuko gainerako herrietatik:

- Bokal luze gutxiago ageri da
- Mugatzailea ez da galtzen: *soldaduek* (Mus.) vs. *soldaduk* (gainerakoak)
- *a > e* indartsua ingurune jakin batzuetan (ikus 2.1.3.1., 2.1.3.2. eta 2.1.3.3.)
- *u > i* palatalizazioa (*artiko* ‘hartuko’, *paati ar* ‘paratu behar’)
- *-e-nd-u- > -au-* disimilazioa (*ittau* ‘egiten dugu’)
- Hiatoei hobeki eutsi diete
- Sinkopa eta aferesia bizkorxeagoak dira
- Asimilaziozko palatalizazioaren jaitsiera
- [j] ebakera (*yakin* vs. *jakin* ‘jakin’)
- Bokal arteko kontsonanteak egonkorragoak dira
- Singularraren eta pluralaren sinkretismo morfoloikoa → ekialdeko azentuera
- Ablatibo pluraleko eta mugagabeko *-taik* morfema (*amar euntaik* ‘hamar egunetatik’)
- Lehen pertsona singularreko NORI morfema: *-da*, (*dire* ‘dit’, *zaide* ‘zait’)
- Bigarren pertsona pluraleko NORK eta NORI morfema: *-zie* (*duzie* ‘duzue’, *zaizie* ‘zaizue’)
- NORI saileko *-ki-* erroa (*zaikion* ‘zitzaion’)
- Hitz eta aldaera lexiko multzoa (ikus 6.1.)

3.2. Ezaugarri bereziak ditu Goldaratzen, Basaburu Nagusi gehiengan (salbu ekialdeko herriak) eta Larraungo hego-ekialdean mintzatzen den euskarak. Berezitasuna fonologian dago batez ere, eta, askotan, haiekin batera doaz Larraungo ipar-mendebala eta Araitz-Betelu ere. Hona eremu horretako ezaugarri “bereziak”<sup>23</sup>:

- Bokal-asimilazioak: *-ii* & *-ee* ‘-ea’, *-ii* ‘-ia’, *-uu* ‘-ua’
- *a > e* oparua ingurune jakin batzuetan (ikus 2.1.3.4., 2.1.3.5.)
- *u > o* oparua (batez ere Araitz-Betelun)
- *i > e* oparua (salbu Goldaratzen)

<sup>23</sup> Ez dugu esan nahi horiek gure eremuko ezaugarri eksklusiboak direnik; aurreko ataletan zehaztu dugu zein den ezaugarri bakoitzaren hedadura.

- Diptongoetako bilakabideak:  $-e(C)u- > -iu-$ ,  $-e(C)o- > -io-$  eta  $-e(C)a- > -ia-$  (*iuzki* ‘eguzkia’, *iozin* ‘edozein’, *iaman* ‘eraman’)
- Singularraren eta pluralaren bereizkuntza morfologikoa → erdialdeko azentuera
- “Egon” aditzaren trinkoak (*zai* ‘zaude’, *dai* ‘daude’)
- “Joan” aditzaren trinkoak (*nii* ‘noa’, *dii* ‘doa’)
- “Eduki” aditzaren trinkoak (*daukit* vs. *dauket* ‘daukat’)

3.3. Eremu osoan da nabaria Euskal Herriko erdiguneko berrikuntzen eragina, baina Imotz eta Basaburu Nagusia maizago atxikitzen zaizkie ekialderagoko eta hegoalderagoko hizkeren ezaugarri eta berrikuntzei, eta Larraun (ipar-mendebala batez ere) eta Araitz-Betelu nabarmenago lerratu dira erdiguneko eredueta (morfologian batez ere). Zenbaitetan, Larraunekin eta Araitz-Betelurekin batera doaz Goldaratz eta Beruete ere. Hona Imotz-Basaburu Nagusia eta Larraun-Araitz-Betelu eremuen arteko aldea islatzen duten ezaugarri nagusiak<sup>24</sup>:

- $d > r$  indartsuagoa Larraunen eta are Araitz-Betelun
- $-nt-$  vs.  $-nd-$  (*emanta* vs. *emanda* ‘emanda’)
- *oketan* vs. *otan* ‘hauetan’ gisako erakusle plural deklinatuak
- Instrumentaleko  $-s$  vs.  $-z$
- Destinatiboko  $-tako$  vs.  $-tzat$
- Ablatiboan deklinatutako *goaiñik* vs. *oanddo* ‘oraindik’
- Motibatiboko  $-gati(k)$  vs.  $-gati(k)$  &  $-gatio$
- *onata* vs. *onutza* gisakoak
- $-kan$  vs.  $-ka$  modu-atzizkia
- $-on bat$  vs.  $-(re)n bat$  egitura
- “Nor” vs. “zein” galdetzaileak
- $-tto$  vs.  $-txo$  atzizki txikigarriak
- Lehen pertsona singularreko NORI:  $-e$  vs.  $-t$  (*zaie* vs. *za(i)t* ‘zait’)
- Bigarren pertsona singularreko  $\gamma-$  vs.  $\emptyset$  (*yaiz* vs. *aiz* ‘haiz’)
- Bigarren pertsona pluraleko NORK eta NORI:  $-zte$  vs.  $-zui$ ,  $-zue$  (*duz-te* vs. *duzui*, *duzue* ‘duzue’)
- Hirugarren pertsona pluraleko NORK:  $-te$  vs.  $-i$ ,  $-e$  (*dute* vs. *dui*, *due* ‘dute’)
- Hirugarren pertsona pluraleko NORI:  $-te$  vs.  $-i$ ,  $-e$  (*zaiote* vs. *zayi*, *zaie* ‘zaie’)
- Nor-nori-nork saileko pluralgilea:  $-it-$  vs.  $-azk-$  (*ttiot* vs. *(d)azkiot* ‘dizkiot’)
- Geroaldiko morfema:  $-en$  ( $> -in$ ) vs.  $-go$  (*emain* vs. *emango*)
- Nor-nori-nork eta nor-nork sailen nahasketa vs. nahasketarik eza
- Adizki pleonastikoak Araitz-Betelun (*ziozun* ‘zenion’...)
- Kausa-perpauasak:  $-lakos$  vs.  $-lako$
- Denbora-perpauasak:  $-larik$  vs.  $-nean$
- “Uste +  $-en$ ” vs. “uste +  $-ela$ ” egitura
- Nominalizazioak: “utzi +  $-t(z)ed$ ” vs. “utzi +  $-t(z)en$ ”

<sup>24</sup> Imozko eta Basaburu Nagusiko ezaugarria emango dugu lehenik, eta Larraungoa eta Araitz-Beteluko ondoren.

Horretaz gain, lexikoaren azterketan ikusi dugu, geografian mendebalerantz egin ahala, Euskal Herriko erdiguneko hizkeren eragina handitu egiten dela; Araitz-Betelun da hori garbiena.

Azkenik, batez ere (baina ez soilik) Araitz-Beteluko gazteek beren mintzotan txertatu dituzten euskara giputzaren ezaugarriak aipatu beharrean gaude:

- *ondo* eta *obeto* aditzondoak
- “Izan” aditzaren *-e* erroa (*gea, zea, zeate*)
- “Edun” aditzaren *-e* erroa (*det, dezu, deu*)
- *zend-*, *gend-* lehenaldiko zenbait aditzetan (*zendun, gendun*)
- “Joan” aditzaren *nijoa* gisako trinkoak (vs. *nii, noa*)
- “Etorri” aditzaren *nator* gisako trinkoak (vs. *eldu naiz*)

#### 4. ONDORIOAK

4.1. Euskal dialektologian, garrantzi handiko eremua da lan honetan aztertu duguna. Besteak beste, euskara nafarraren eta erdialdeko euskararen artean dago-elako da interesgarria eta aztertu beharrekoa: batetik, ekialderagoko (eta hegoalderagoko) hizkeretan ere badauden ezaugarri eta berrikuntza askok gure eremuan dute muga, eta, bestetik, nabaria da erdialdeko euskararen berrikuntzek gure eremuan duten eragina, Larraunen eta Araitz-Betelun batez ere. Hain zuzen, Zuzok tarteko hizkeratzat hartu ditu Imozkoa, Basaburu Nagusikoa eta Larraungoa (2003: 132-141), eta “sortaldeko azpieuskalkira” bildu, Gipuzkoako ipar-ekialdeko Oiartzun, Irun eta Hondarribiarekin batera (Zuazo 2003: 137-138).

4.2. Lau ibarretako euskara ez da homogenea. Araitz-Beteluko da euskararik homogeenoa, ez baitugu sumatu hango herrien artean desberdintasun adierazgarririk dagoenik. Baina desberdintasun nabarmenak aipatu ditugu Imotzen, Basaburu Nagusiaren eta Larraunen baitan. Beraz, administrazio-banaketa eta hizkeren banaketa ez datoz bat.

4.3. Gure eremua zatitzen duten isoglosak bertikalak dira: aldaketak ekialdea-mendebala norabidean gauzatzen dira. Hizkuntza-eten nagusia Muskitzen sumatu dugu (ikus 3.1.); handik mendebalera, aldaketa bada, baina etena gero eta zailagoa da antzematen: saio honetan, askotan aipatu dugu ezaugarriak gradualki desagertzen edo areagotzen direla. Alderdi fonologikolari erreparatuta, eremu “berezia” osatzen dute Goldaratzek, Basaburu Nagusiak eta Larraunek, eta, askotan, baita Araitz-Beteluk ere (ikus 3.2.); alderdi morfologikolari erreparatuta, aldiz, batera doaz Imotz eta Basaburu Nagusia alde batetik, eta Larraun eta Araitz-Betelu, bestetik (ikus 3.3.). Nolanahi ere, Larraunek eta Araitz-Beteluk morfologian antzekotasun handiak dituzten arren, Larraungo hego-ekialdeak kutsu berezia ematen dio bere morfologiari ezaugarri fonologikoen bitartez (aditzaren morfologiari, batez ere).

4.4. Oro har, ezaugarri eskusibo gutxiko (edo ia gabeko) eremua da gurea<sup>25</sup>: eman ditugun ezaugarri gehientsuenak inguruko hizkeretan ere badira.

<sup>25</sup> Dialektologian oso kontuan hartu beharrekoa da ezaugarrien eskusibotasuna (Camino 2004a: 75).

Ezaugarri batzuk eremu zabalekoak dira, eta beste batzuk murriztagokoak; baina (ia) guztiak ere ezagunak beste hizkera batzuetan ere.

4.4. Ondoko hizkera gipuzetatik berrikuntza ugari sartu da gure eremura, Araitz-Betelura batik bat; oso nabaria da hori Araitz-Beteluko gazteen hizkeran. Eskualde horren “hirigunea” Tolosa izan da, eta hala da, hein handi batean, oraindik ere: araitzar zein beteluar askok Gipuzkoara (Tolosaldera eta Goierriara batez ere) jotzen dute aisialdiko zein bestelako beharrak asetzera. Gipuzkoaren eragina askoz apalagoa da Imotzen eta Basaburu Nagusian: hango bizilagunak Iruñera begira bizi dira, eta ildo horretatik aztertu behar dira hango hizkuntza-eraginak ere. Gaur egun, imoztar eta basaburutar gehienen hizkuntza-ereduak euskara batua eta gaztelania dira, eta haietara leratzen ari da gazteen euskara, ez eredu gipuzetara.

## BIBLIOGRAFIA

- AGIRREBEÑA, A.; MAIZ, B.; MUNIOZGUREN, F.; SARASUA, A.; ZABALETA, M., 2007, *Zarautz bizketan*, Zarautz, Zarauzko Udala.
- ALTUNA OTEGI, F., 1995, “Pleonasma baten historiaz: debea ‘dute’ bezalako adizkien inguruan”, *ASJU* XXIX-1, 219-244.
- APALAUZA OLLO, A. eta LAKAR IRAIZOZ, M., 2001-2003, *Malerrekako ahozko tradizioa*, Nafarroako Gobernuak eta Malerrekako Mankomunitateak diruz lagundutako ikerketa-proiektua (lan argitaragabea).
- APALAUZA OLLO, A. eta ARRAZTIO SARALEGI, K., 2003-2005, *Araitz-Beteluko ahozko tradizioa*, Nafarroako Gobernuak eta Araizko eta Beteluko Udalek diruz lagundutako ikerketa-proiektua (lan argitaragabea).
- , 2007, *Araitz-Beteluko ahotsak. Ahozko tradizioaren bilduma*, Nafarroako Gobernuak eta Araizko eta Beteluko Udalak, Iruñea.
- ARANA, A., 2004, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Artzibarko aldaera*, Donostia, Hiria.
- , 2006, *Nafarroako euskalkiak. Hegoaldeko goi-nafarrera. Txulapaingo aldaera*, Donostia, Hiria.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, 1984-1990, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa (EAEL)*, Donostia.
- ARTOLA, K., 2006, “Artzibarko aldaera deitu izanaren inguruan (1 - sarrera eta lehen galderasortak)”, *FLV* 103, 393-428.
- BÄHR, G., 1972, “Estudio sobre el verbo guipuzcoano”, *RIEV* 22, 245-269.
- CAMINO, I., 1997, *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*, Iruñea, Nafarroako Gobernuak.
- , 1999, “Goñerriko hizkera (i)”, *ASJU* XXXIII-1, 5-78.
- , 2000, “Abiaburu bat Donostiako euskera aztertzeke”, in *Dialektologia gaiak*, K. Zuazo (arg.), EHU eta Arabako Foru Aldundia, 51-81.
- , 2003, *Hego-nafarrera*, Iruñea, Nafarroako Gobernuak.
- , 2004a, “Irizpide metodologikoak egungo euskal dialektologian”, *Euskera* 49-2, Bilbo, Euskaltzaindia, 67-102.
- , 2004b, “Nafarroa Behereko euskara”, *FLV* 97, 445-486.
- , 2005, “Arakilgo euskara: kokagunearen auzia eta datuen fidagarritasuna”, *FLV* 99, 265-286.
- , 2006, “Irañetako eta Arakilgo mintzoaren gurrpilean”, *FLV* 101, 55-68.
- CASAS TORRES, J. M. eta ABASCAL GARAYOA, A., 1948, *Mercados geográficos y ferias de Navarra*, Zaragoza, Príncipe de Viana erakundea eta EEP.
- EPELDE, I., 2004, “Lapurdiako hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz”, *FLV* 96, 271-303.
- ERDOZIA, J. L., 2001, *Sakana erdialdeko euskara*, Iruñea, Nafarroako Gobernuak.
- ERIZE, X., 1997, *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa (1863-1936): soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*, Iruñea, Nafarroako Gobernuak.



- ETXABE, K. eta GARMENDIA, L., 2003, *Zaldibiako euskara. Bertako bizimodua, ohiturak eta pasadizoak*, Zaldibiako Udala.
- , 2004, *Ordiziako euskara: garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera*, Ordizia, Ordiziako Udala eta Hitzaro.
- ETXAIDE, A. M., 1984, *Erizkizundi Irukoitza*, *Iker* 3, Bilbo, Euskaltzaindia.
- , 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- FRAILE, I. eta FRAILE, A., 1996, *Oiartzungo hizkera*, Oiartzun, Oiartzungo Udala.
- GAMINDE, I., 1985a, *Aditza ipar goi nafarrez III*, Iruñea, UEU.
- , 1985b, “NOR-en ahalezko oraina eta JOAN, IBILI eta EGON aditzen alokutiboak (Nafarroan)”, *FLV* 46, 215-264.
- , 1998, *Euskaldunen azentuak*, Bilbo, Labayru ikastegia.
- HUALDE, J. I., 1997, *Euskararen azentuerak*, Donostia eta Bilbo, Gipuzkoako Foru Aldundia eta EHU.
- HURTADO, I., 2001, *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*, IX. Gerriko Ikerlan Sariketa, Lazkao.
- IBARRA, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- , 2000, *Erroibarko eta Esteribarko hizkera*, Iruñea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
- INTZA, D., 1957, “Larraun eta bere euskalkia”, *Euskera* II, 91-105.
- IRIZAR, P., 1981a [1949], *Contribución a la dialectología de la lengua vasca I*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- , 1981b [1949], *Contribución a la dialectología de la lengua vasca II*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- , 1981c [1949], “Los dialectos y variedades del vascuence”, in *Contribución a la dialectología de la lengua vasca I*, P. Irizar, 95-125.
- , 1992a, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (estudio dialectológico) I*, Iruñea eta Bilbo, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- , 1992b, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional (estudio dialectológico) II*, Iruñea eta Bilbo, Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.
- IZETA, M., 1996, *Baztango hiztegia*, Iruñea, Nafarroako Gobernua.
- LAKAR, M. eta TELLETXE, A., 2003-2004, *Baztango ahozko tradizioa*, Nafarroako Gobernua eta Baztango Udalak diruz lagundutako ikerketa-proiektua (lan argitaragabea).
- MITXELENA, K., 1977 [1961], *Fonética Histórica Vasca*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- MOUTARD, N., 1975, “Étude Phonologique sur les Dialectes Basques (II)”, *FLV* 20, 141-189.
- OLANO, M., 1998, *Areso eta Leitzako hizkerak. Bertako hitz eta historian barrena*, Iruñea, Nafarroako Gobernua, Aresoko eta Leitzako Udalak.
- , 2000, “Gipuzkoa ondoko bi hizkera nafar: Areso eta Leitzako paradoxa”, in *Dialektologia gaiak*, K. Zuazo (arg.), Gasteiz, Arabako Foru Aldundia, 121-147.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M., 1972, *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)*, Iruñea, Príncipe de Viana erakundea eta Nafarroako Foru Diputazioa.
- SAGARZAZU, Tx., 2005, *Hondarribiko eta Irungo euskara*, Irun, Alberdania.
- URABAIEN, L., 1959, *Una geografía de Navarra*, Iruñea, Libe.
- ZELAIETA, E., 2004, “Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (I)”, *FLV* 96, 223-248.
- , 2005, “Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)”, *FLV* 99, 287-306.
- ZUAZO, K., 1997, “Oiartzungo hizkeraren kokagunea”, *FLV* 76, 397-425.
- , 1998, “Euskalkiak, gaur”, *FLV* 78, 191-233.
- , 1999, “Baigorriko euskara kokatzeari buruz”, *Lapurdum* 4, 247-277.
- , 2003, *Euskalkiak. Herriaren lekukoak*, Donostia, Elkar.
- , 2006, *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*, Oñati, Badihardugu Euskara Elkarte.
- ZUBIRI, J. J. eta PERURENA, P., 1998, *Goizueta eta Aranoko hizkerak*, Iruñea, Nafarroako Gobernua eta Goizuetako eta Aranoko Udalak.

## LABURPENA

*Nafarroako ipar-mendebaleko euskara: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu*

Nafarroa Garaiko ipar-mendebaleko lau ibarretako euskara aztertu dugu saio honetan: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun eta Araitz-Betelu. Hango euskararen ezaugarri nagusiak zein diren azaldu dugu lehenik, eta herrien edo ibarren artean dauden desberdintasunak agerian utzi ditugu ondoren. Ikuspegi geolinguistikoa gailendu zaio lanari, eta gure eremuan ageri diren ezaugarriak beste zein hizkeratan erabiltzen diren zehaztu nahi izan dugu. Azkenik, hizkuntza-eten nagusiak non dauden identifikatu dugu.

## RESUMEN

*El euskera de la Navarra noroccidental: Imotz, Basaburu Mayor, Larraun y Araitz-Betelu*

En este estudio hemos analizado el euskera hablado en cuatro de los valles de la Navarra noroccidental, el de Imotz, Basaburu Mayor, Larraun y Araitz-Betelu. En primer lugar mencionamos las principales características de las hablas de dichos valles y después ponemos de manifiesto las diferencias existentes entre las distintas localidades y valles. Hemos dado preferencia a los aspectos geolinguísticos y hemos intentado mostrar en qué hablas aparecen las características lingüísticas propias de nuestra zona de estudio. Finalmente explicamos dónde están los límites lingüísticos más relevantes.

## RÉSUMÉ

*Le basque du nord-ouest de Navarre: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun et Araitz-Betelu*

Dans cette dossier, nous avons étudié le langue basque qui est parlé dans le quatre vallées de la région nord-ouest de Navarre: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun et Araitz-Betelu. D'abord nous avons détaillée les principaux caractéristiques de la langue de cette area, et nous avons montré les différents qu'il y en a entre les villages ou les vallées. L'aspect géolinguistique est prédominant dans ce travail, et nous avons voulu vérifier dans quelle autres endroits sont present aussi les caractéristiques qui sont apparus dans notre area d'étude. Finalement, nous avons identifié la location des principaux "limites de langues".

## ABSTRACT

*The Basque of north-western Nafarroa: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun and Araitz-Betelu*

In this study, we have analysed the Basque language spoken in the North West Nafarroa's four valleys: Imotz, Basaburu Nagusia, Larraun and Araitz-Betelu. First of all, we have mentioned the main characteristics of the Basque language in there, and then, we have compared the differences that we have found between villages or valleys. Geo-linguistic aspects have been given preference in this study, and we have tried to detail where else the main characteristics that have shown up in our study-area appear too. Finally, we have identified the location of the main "language limits".